MUSIKA

Nerea TELLECHEA GONZÁLEZ

# Musikograma baten lanketa, kontzertu didaktiko baten proposamenaren bidez/El estudio de un musicograma, a través de la propuesta de un concierto didáctico

TFG/*GBL* 2014

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
*Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea*

*LehenHezkuntzakoIrakasleenGradua*

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

# Musikograma baten lanketa, kontzertu didaktiko baten proposamenaren bidez / El estudio de un musicograma, a través de la propuesta de un concierto didáctico

NereaTELLECHEA GONZÁLEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**
Nerea TELLECHEA GONZÁLEZ

**Izenburua / Título**
Musikograma baten lanketa, kontzertu didaktiko baten proposamenaren bidez / El estudio de un musicograma, a través de la propuesta de un concierto didáctico

**Gradu / Grado**
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea /Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria/ Director**
Alejandro MARTINEZ ARANA

**Saila / Departamento**
Psikologia eta Pedagogia / Psicología y Pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**
2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**
Udaberria / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: "ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira

Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak ikasgelan eguneroko errealitateari aurre egiteko kontuan hartu beharreko elementu guztien ezagutzarako bidea argitu dit, hau da, gela batean aurki ditzakegu ikasle ezberdinen ezaugarriak, hala nola, jarrerak, emozioak, garapen ebolutiboa, ezagutzak … Guzti hau, nire proiektuaren gaian aplikaturik egotea garrantzitsua da, hots, kontzertu didaktiko baten proposamenean beharrezkoak dira kontuan hartzea aipaturiko elementu guzti hauek. Esparru hauek, lanaren arlo teorikoan ageri dira eta arlo praktikoan aldiz, gauza guzti hauek bertan aplikatuak agertzen dira.

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman dit momentu oro kontuan izateko ikasle guztiek gelan azaleratzen dituzten beharrak, emozioak, jarrerak, gaitasunak, ahuldadeak … ikasle hauei musika gelan proposatuko ditudan jarduerak, ekintzak eta planteamenduak, modu didaktiko egoki batean egokitu ahal izateko aukera eman dit. Nire proiektuaren kasuan, modulu honek asko lagundu nau, kontzertu didaktikoan erabiliko den obra musikala aukeratzen.

Halaber, Practicum moduluak lan honen atal gehienetan aplikatuta nabarmentzen da. Modulu honek, egoera errealei aurre egiteko beharrezko baliabideak eskaintzen ditu eta ondorioz lana honen atal praktikoa burutzeko lagungarria izan zait, izan ere, bi hilabetez, musika gela batean egiten dena ikustearen esperientzia aparteko informazioa eskaini dit nire proiektua burutu ahal izateko.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira atalak, “Marco teórico” eta “Conclusiones y Cuestiones abiertas” baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Erabili al daitezke kontzertu didaktikoak musika hezkuntzako tresna gisa? Egokia al da tresna hitza erabiltzea kontzeptu horri erreferentzia egiteko?Ikasleek obra musikalen entzunaldia eta lanketa modu tradizionalean egin beharrean, oso erabilia ez den baliabide musikal hau erabiltzeko aukera badute ere.

Proiektu honekin lortu nahi dena da, proposatutako kontzertu didaktiko baten bidez, lehen hezkuntzako ikasleak antzinako obra musikal bat bere osotasunean landu ahal izatea.

Baina, ikasleak ez al dira aspertuko aitzinako obra musikal bat lantzen, gazteek gaur egungo musika mota nahiago baldin badute? Ikasleen jarrera hori saihesteko, musikograma lan tresnaren erabileran oinarrituko gara, zeinari esker ikasleek landuko den obra musikala entzuteaz gain, hau azalduko duten marrazki ezberdinez baliatuko dira.

Ondorioz, gure geletan asko erabiltzen ez den lan tresna honi esker, obra musikala modu entretenigarri batean landu eta ikasi ahalko dute ikasleek.

*Hitz gakoak*: Kontzertu didaktikoa, musikograma, obra musikala, lan tresna, musika hezkuntza.

## Resumen

¿Es posible utilizar los conciertos didácticos como herramienta en la educación musical? ¿Es apropiado emplear la palabra herramienta para hacer referencia a este concepto?

El objetivo de este proyecto es, que alumnos de Educación Primaria trabajen una obra musical tradicional en toda su totalidad, a través de un concierto didáctico.

¿Pero, los alumnos de Educación Primaria no se aburrirán al trabajar una obra musical tradicional, ya que la música actual es la que hoy en día los jóvenes prefieren? Para evitar esa posible actitud de los alumnos, nos basaremos en la herramienta de trabajo llamada musicograma, gracias a la cual los alumnos podrán trabajar y aprender la obra musical escuchándola pero también, podrán apoyarse en la variedad de dibujos que ésta nos ofrece.

En conclusión, gracias a esta herramienta de trabajo que es poco utilizada en nuestras aulas, los alumnos podrán trabajar y aprender la obra musical en toda su totalidad.

*Palabras clave*: conciertos didácticos, musicograma, obra musical, herramienta de trabajo, educación musical.

## Abstract

Is it possible to use didactic concerts as educational tools in the study of music?Is it appropriate to use the word “tool” when referring to this concept?

The aim of this project is to get Primary School students to study a traditional concert in its entirety using a didactic concert. But, will these students, whose preferences are more inclined towards contemporary music, not get bored when studying a traditional concert?

In order to avoid this possible reaction/attitude, a tool known as musicgram will be used. Students will be able to work and study a musical not only by listening to it but, also by making use of the variety of drawings it offers (it consists of the visualization of the musical structure, through a scheme with colours, symbols and geometrical figures).

In conclusion, thanks to this still under-utilized tool in our classrooms, students will be able to study and learn a musical concert as a whole.

*Keywords*: Didactic concert, musicgram, contemporary music, tool, study of music.

## Résumé

Est-il possible d ´utiliser les concerts didactiques comme un outil pour l ´apprentissage de la musique? Est –il bien utilisé le terme “outil” pour faire reference à ce concept?

La finalité de ce project-ci, c´est que des élèves de l´Enseignement Primaire puissent travailler, puissent connaître une pièce de musique traditionnelle ,à travers un concert pédagogique.

Est-ce que les élèves de L ´Enseignement Primaire s´ennuieront quand ils devront travailler une pièce de musique traditionnelle, car ils sont tous habitués à la musique actuelle??Pour essayer de ne pas tomber à l´ennui, nous emploierons comme outil de travail un”musicograma”, avec lequel les élèves pourront comprendre, apprendre la pièce de musique en l´écoutant mais aussi en regardant les différents dessins qui nous racontent toute l´histoire, sujet de la pièce de musique.

Pour concluire, grâce à cet outil (le ”musicograma”),peu utilisé à nos cours d´enseignement de musique, nos élèves pourront comprendre et jouir d ´une pièce de musique traditionnelle.

Mots-clefs: concerts pédagogiques, ”musicograma”, pièce de musique, outil, éducation musicale.

**Sarrera**
**1. Proiektuaren helburuak** **1**
**2. Marco teórico** **3**
2.1. Diferentes propuestas pedagógicas en la educación musical 3
2.1.1. Autores de la primera mitad del siglo XX. 3
2.1.2. Autores de la segunda mitad del siglo XX. 7
2.2. La educación musical actual 8
**3. Materialak eta metodoak** **9**
3.1. Mari Carmen Ortega Prada 10
3.2. Juan Pérez Rodríguez 13
3.3. Kontzertu didaktikoak 14
3.3.1. Kontzertu didaktikoen helburuak 16
3.3.2. Kontzertu didaktikoaren beharrezko elementuak 16
3.3.2.1. Gidoia 16
3.3.2.1.1. Gidoia baten planifikazioa 16
3.3.2.2. Publikoarekin elkarrekintza 20
3.3.2.3. Interpretazioaren kalitatea 20
3.3.2.4. Aurkezpena 21
3.3.2.5. Denboralizazioa 21
3.3.2.6. Ebaluazioa 21
3.4. Zer dira musikogramak? 22
**4. Proposamen didaktikoa** **22**
4.1. Kontzertu didaktikoaren diseinua: Oreina eta ehiztaria 22
4.1.1. Kontzertu didaktikoaren aurkezpena 22
4.1.2. Materialak 23
4.1.3. Helburu zehatzak 24
4.1.4. Musikogramaren lanketaren edukiak 25
4.1.5. Proposatutako kontzertu didaktikoaren gidoiaren plangintza 26
4.2. Kontzertu didaktikoaren gidoia 28
4.2.1. Gidoiaren garapena 33
4.3. Kontzertuaren ebaluazioa 45
4.4. Datu bilketa 45
4.4.1. Aurre ebaluazioa 46
4.4.2. Amaierako ebaluazioa 47
**Conclusiones y cuestiones abiertas**
**Erreferentziak**
**Eranskinak**
Eranskina I :Antonio Vivaldiren « Las cuatro estaciones, Otoño» zatiaren «La caza» zatia.
Eranskina II : Juan Hernández Freixinósen muskograma
Eranskina III : Antzerkiaren antolaketa
Eranskina IV : Musikarien «Las cuatro estaciones, Otoño, La caza » obraren partitura
Eranskina V : Ikasleek egindako antzezpenaren bideoa

# SARRERA

Ondorengo lerro hauetan, proiektu honen garapenaren nolakotasuna azalduko dut, honen garapenean kontuan hartu diren puntuak zeintzuk diren azalduz. Lehenik eta behin aipatu beharra dago, proiektu hau burutzeko kontzertu didaktikoen erabilpena landu dela eta hau euskarri izanik, autore garrantzitsu baten musikogramaren lanketa egin da.

Hasteko, proiektu honekin lortu nahi ditudan helburu orokorrak azalduko ditut, helburu bakoitzari azalpen zehatz bat emanen zaiolarik. Argi dago, helburu hauek planteatuko ez balira, proposatutako proiektuak ez lukeela inongo zentzurik izanen, hau helburu batzuk lortzearen funtsarekin egin baita.

Ondoren, Marko teorikoaren atalean, XX. mendean zehar musika hezkuntzan egon diren proposamen ezberdinen jarraipena eginen da, hau bi ataletan banatuko delarik, alde batetik XX. mendearen lehen erdian eragina izan duten pedagogoak eta beste alde batetik, XX. mendearen bigarren erdian eragina izan dutenak. Honekin erlazionaturik, gaur egun musika hezkuntzak duen egoeraz hitz eginen da, etorkizunari aipamen txiki bat eginez.

Hurrengo atalean aldiz, kontzertu didaktikoen baitan hitz egiten duten aditu ezberdinen berri emanen dut eta atal honekin bukatzeko, aipatutako aditu horien teoria ezberdinak kontuan harturik, kontzertu didaktikoaren definizio sendo bat eraikiko da. Ondoren, proposatutako kontzertu didaktikoaren garapenean erabiliko den musikogramaren nolakotasunaren azalpena emanen da, honen sortzailearen autoreari garrantzia emanez.

Proiektuaren azkeneko atalean, atal praktikoan hain zuzen ere, eskola batean burutua izateko kontzertu didaktiko baten proposamenaren garapena bere osotasunean azalduko dut.

Bukatzeko, datuen jasoera bat eginen da eta proposatutako proiektuan oinarrituz, ateratako ondorioren azalpen bat emanen delarik.

## 1. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Hona hemen proiektu honekin lortu nahi ditudan helburuak, hauek defendatzeko argumentu batzuk emanda:

- *Publikoari, musikaren garrantziaz kontzientziatu.*

  Gaur egun, ez dugu musikak duen garrantzia baloratzen, aurreko mendeetan ez bezala, nahi dugun momentuan botoi soil bat sakatuz, estilo ezberdinetako musikak entzun ditzakegu eta. XX. mendean, musika gure sozietatean elementu sekundariotzat hartzen dugu, hau beste gauzak egiten ari garen bitartean entzuten dugulako edo honi beste gauza batzuei baino garrantzi gutxiago ematen diogulako. Hori ez litzateke horrela izan behar, musika gure bizitzan elementu primarioa behar luke izan, oso elementu garrantzitsua baita.

- *Ikasleei, musikarekiko interesa piztea, musika ez bakarrik irakasgai baten moduan ikusteko baizik eta sormena lantzeko tresna moduan ikus dezaten.*

  Ikasle gehienak, musika irakasgai baten moduan ikusten dute eta komenigarria litzateke ideia hori kentzea. Argi utzi behar zaie ikasleei, musika ez dela soilik irakasgai bat, musika hori baino askoz ere gehiago da eta hau ongi erabiltzen ikasten baldin badugu, uste duguna baino ekarpen handiagoak jaso dezakegu honen aldetik.

- *Garatutako proposamena ikastetxe batean praktikan jartzerakoan baliozkoa izatea.*

  Garrantzizko puntua delakoan nago, izan ere, ez da zentzuzkoa kontzertu didaktiko baten proposamena egitea hau praktikan jarri behar ez baldin bada. Ondorioz, kontzertu didaktiko bat bere osotasunean garatu ondoren, hau praktikara eramatea izango litzateke bide egokiena.

- *Ikasleei, musikaz gozatzeko beste baliabide bat dagoela erakutsi (kontzertu didaktikoak).*

  Ziurrenik kontzertu didaktikoaz gozatuko duen ikasleriaren gehiengoak, hasiera batean ez du pentsatuko bertan entzungo duen musika estiloarekin gozatuko duela, gaur egun musikaz gozatzeko bestelako baliabideak sofistikatuagoak baitaude. Horrexegatik erakutsi behar zaie,

modu asko daude musikaz gozatzeko eta horietako bat, kontzertu didaktikoak direla.

- *Erakutsi, pertsona guztiok musika egiteko gai garela.*

  Garatutako kontzertu didaktikoarekin lotuta dago helburu hau, izan ere sortutako kontzertu didaktikoak jakileak eta ez jakileak parte hartuko dute eta horren kontziente izatea da helburu, hau da, jakin edo ez jakin, denok musika egin dezakegula.

- *Entzulea musika tresna ezberdinetara hurbiltzea.*

  Kontzertu didaktikoan egunero ikusten ez diren musika tresna ezberdinak entzungo dira eta hauekin harremanetan jartzea eta ezberdintzea interesgarria dela iruditzen zait.

- *Aisialdi atsegina, dibertigarria eta pedagogikoa eskaintzea.*

  Kontzertu didaktiko honen helbururik garrantzitsuenetariko bat, publikoak aisialdi dibertigarri bat izatea da, baina honekin batera kontzertu didaktikoarekin zerbait ikastea ere.

# 2. MARCO TEÓRICO

## 2.1. Diferentes propuestas pedagógicas en la educación musical

Para comenzar, he creído conveniente conocer los antecedentes de los conciertos didácticos, antes de comenzar a profundizar en su teoría ya que es el objetivo central de este proyecto.

Analizando el patrimonio histórico musical, he podido observar que los conciertos didácticos ya tienen un pequeño espacio en el panorama musical a partir del siglo XVII, pudiendo mencionar cronológicamente autores como Antonio Vivaldi (1678-1741), Amadeus Mozart (1756-1791) o Ludwig Van Bethoven (1770-1827) y Sergei Prokofiev (1891-1953). De entre estos ejemplos quiero mencionar el concierto “Pedro y el lobo”, cuento sinfónico compuesto por el último autor mencionado, es decir Prokofiev (1891-1953) por sus especiales características. Esta obra fue encargada por el gobierno ruso al mencionado compositor con una específica finalidad, la cual era enseñar al alumnado ruso de una forma lúdica y atractiva, los diferentes instrumentos de la orquesta y sus características. El autor, llevó a cabo el encargo con tan gran maestría (1936) que este concierto ha llegado con gran fuerza hasta nuestros días e incluso, podemos afirmar, que actualmente esta obra es utilizada como material pedagógico en nuestras aulas de primaria, suponiendo una base teórica fundamental para la realización de los conciertos didácticos de hoy en día.

Consecuentemente, para comprender la situación pedagógica actual en nuestras aulas de música, he ido analizando las diferentes corrientes pedagógicas desarrolladas a lo largo del siglo XX, pudiendo diferenciar dos etapas; autores de la primera mitad del siglo XX y autores de las últimas décadas de dicho siglo.

### *2.1.1. Autores de la primera mitad del siglo XX*

La corriente iniciada a principios del siglo XX basada en “la música para todos” trajo consigo la necesidad de preocuparse de trabajar y profundizar la didáctica. A principios de siglo XX se han producido aportaciones en el mundo de la pedagogía musical. La enseñanza de la música está cambiando considerablemente ya que además de enseñar en aspectos formales como

puede ser el canto, la interpretación instrumental y el lenguaje musical, existe una gran preocupación por aprovechar la educación musical como proceso globalizador, capaz de desarrollar la expresión, la comunicación, el entendimiento, la creatividad, la imaginación y la improvisación. Esta serie de métodos activos, que toman como punto de partida la actividad del niño, son los métodos que conforman la denominada “Escuela Nueva” en la cual no podemos olvidar la figura de la pedagoga María Montessori (1870-1952) cuya teoría define inmejorablemente esta educación activa ya que, buscaba el aprendizaje mediante las vivencias y el propio descubrimiento por parte de los niños y niñas. Siguiendo con el recorrido de la “Escuela Nueva”, iré mencionando aquellos autores que tuvieron influencia en dicha corriente.

Así comenzaré mencionando a Jaques-Dalcroze (1865-1950),pedagogo y compositor Suizo, que basó su método en la improvisación, el solfeo y el movimiento rítmico (eurhythmics), elementos indispensables para conseguir el desarrollo de los reflejos infantiles, desarrollo de la dinámica y la regulación de las reacciones nerviosas. Estaba convencido que el estudio de la música a través de la expresión corporal era la clave para el desarrollo de la expresión artística. Esos elementos indispensables se corresponden con los siguientes principios fundamentales: la expresión sensorial y motriz, el conocimiento intelectual, y la educación rítmica y musical. Por lo tanto, teniendo en cuenta la estrecha relación entre el movimiento musical y la expresión corporal, puedo decir que este autor basó la educación auditiva y rítmica a través del movimiento. Terminaré diciendo que aunque la metodología Dalcroze estaba estructurada para los todos los niveles educativos, se centra más en la educación infantil (3-6 años) y también ha sido aplicada en niños con necesidades educativas especiales (musicoterapia).

Avanzando en el tiempo, puedo mencionar la labor de Justine Bayard (1879-1975), música francesa, que abandonó los conciertos de piano para dedicarse al estudio de la música de la Edad Media y del Renacimiento. Bayard, considera la voz como el instrumento más importante que existe, defendiendo que todos los niños son capaces de cantar afinadamente siempre y cuando reciban una formación vocal y auditiva adecuada. Este giro en su carrera

artística, se dio después de haber escuchado un canto gregoriano cantado por unos niños en una celebración religiosa. Su método, “Método Ward” (vigente hasta 1966) tiene tres objetivos importantes; la entonación perfectamente afinada, la precisión rítmica y el control de la voz. Resumiendo el “Método Ward”, puedo decir que Justine es una gran defensora de la voz como instrumento fundamental para la formación auditiva y musical. Terminaré esta mención diciendo que para la autora, la música tiene una gran potencialidad educativa pues “*actúa directamente sobre la inteligencia, la voluntad y la sensibilidad”* (Muñoz, J.R, 2007, 34).

Siguiendo en este estudio, encontramos en Hungría a un gran pedagogo, compositor, musicólogo y folclorista llamado Zoltan Kodaly (1882-1962). Su método se basó en la música campesina (folclore húngaro) viendo en el folclore la mejor manera de formar buenos ciudadanos y en su opinión era la responsabilidad del Estado ofrecer una buena educación musical a todos los niños. Creo que este pedagogo, defiende entusiastamente que la música es una parte indispensable de la cultura humana universal y que aquéllos que no poseen conocimientos musicales tienen un desarrollo intelectual imperfecto.

Siguiendo su argumentación, puedo decir que la música tiene valores espirituales que inspiran el alma, ventajas escolares que desarrollan la atención, la concentración, la voluntad y la memoria, e importancia social que refuerza el compañerismo global.

Resumiendo su método, diremos que Kodaly baso su método en tres pilares: por un lado tenemos el solfeo relativo, en el cual sólo se utiliza una tonalidad y los cantos empleados se adecúan al registro de los niños respetando dicha tonalidad. El segundo pilar, es la fononimia que defiende el estudio de la lectura de la música a través de las manos, cuyo objetivo es el desarrollo de la capacidad auditiva afinada de una forma inconsciente. Para terminar, definió el sistema pentatónico compuesto por cinco notas.

Volviendo de nuevo a Francia, nos encontraremos con el compositor Maurice Martenot (1898-1980) compositor de vanguardia que dedicó sus conocimientos

musicales a la educación, ya que ejerció como profesor de solfeo en el conservatorio de Paris. Dado a sus conocimientos de ingeniería e investigador de instrumentos, inventó "Las ondas Martenot", instrumento electrónico de teclado que lleva su nombre. Su método se basa en las características psico-fisiológicas de los alumnos, ya que según su teoría, los niños tienen las mismas reacciones que el hombre primitivo (reacciones primarias y espontáneas). Consecuentemente él defiende que el estudio musical debe basarse en *"El espíritu antes que la letra, el corazón antes que el intelecto"*. (Frega, A.L 1996, 22)

Terminaré diciendo que el método Martenot, supuso una importante reforma en la educación musical francesa.

Avanzando en el siglo XX, podemos destacar la figura del pedagogo Edgar Willems (1890-1978) el cual tras formarse musicalmente en el conservatorio de Paris, estudia el método Dalcroze haciéndose fiel seguidor. El punto de partida de su método fue la importancia que le dio a la educación auditiva, siendo según él, fundamental para el desarrollo de la personalidad infantil y el descubrimiento del potencial musical del niño. Por ello, intentó unir la vida musical y la vida social apoyándose en la idea de que muchos niños eran capaces de reproducir canciones oídas en el hogar, incluso antes de saber hablar.

Para finalizar, el objetivo principal de su método, fue conseguir que los niños amaran la música como lenguaje, pero también como un arte y una ciencia.

Como último representante de la primera mitad del siglo XX tenemos al compositor y director de orquesta, Carl Orff (1895-1982), quien además de componer diferentes obras de envergadura tuvo un papel importante en la educación musical. Este autor basa su método en la relación ritmo-lenguaje, pretende hacer sentir la música antes de aprenderla, pretende despertar la invención de los niños aceptando todas las sugerencias que éstos le proponen al maestro en el día a día del aprendizaje en el aula. Este autor refuerza su método inspirándose en el folclore del país.

### 2.1.2. Autores de la segunda mitad del siglo XX

Llegado a la segunda mitad del siglo XX, podemos destacar la importancia de las aportaciones metodológicas en la pedagogía musical de Raymond Murray Schafer y John Paynter.

Desde Canadá, el educador musical, ambientalista, escritor, compositor y ecologista, Raymond Murray Schafer (1933), se acerca a la pedagogía musical a través de la composición.

Su fama mundial se debe principalmente a su proyecto del Paisaje Sonoro Mundial y su lucha por la ecología acústica. Toma la inspiración de la música contemporánea a través de la creación haciendo que el alumno sea totalmente autónomo. Además de al sonido, le concede también gran importancia al silencio.

Podemos resumir la teoría de Schafer a través de dos ideas. La primera se centra en la necesidad de saber escuchar, es decir, de mantener el silencio. La segunda, se centra en la recreación de ambientes sonoros fomentando la creatividad, la búsqueda y la reflexión.

Partiendo de la teoría de Edgar Willems y simultáneamente basándose en la idea en torno al silencio de Schafer, nos encontramos con este profesor inglés John Frederick Paynter (1930-2010), cuya metodología presenta la creatividad como base del currículo musical, dando un mayor énfasis en los aspectos estructurales de la música como fundamento de la composición. Este autor, se basa en la idea de que el alumnado aprende música, componiendo, interpretando y reflexionando sobre sus propias obras. Con esta teoría, no solo fue uno de los precursores de las nuevas didácticas basadas en la búsqueda de sonidos, sino que también llevó la música contemporánea al aula. Trató de desligarse de la enseñanza musical tradicional centrándose en algo motivador atractivo y realmente cercano a los alumnos.

Como conclusión de todos los autores del siglo XX, puedo decir que es obvio que el desarrollo del pensamiento avanza para todo el mundo y en este caso, podemos ver un claro ejemplo. Los autores de la primera mitad del siglo XX, es decir, Zoltan Kodaly, Carlf Orff, Edgar Willems… valoran aspectos diferentes como el ritmo, el movimiento… dándole siempre gran importancia al sonido que conseguimos tocando un instrumento. Al contrario, los autores de la segunda mitad del siglo XX, desarrollan ese pensamiento teniendo también en cuenta otros puntos de vista, entre ellos el silencio, la contaminación acústica y la salud musical. Estos últimos en cambio, amplían la visión sobre la música y defienden la idea de que el sonido no es sólo lo creado por la música, sino el sonido es todo lo que podemos escuchar.

## 2.2. La educación musical actual

Como es obvio, para comprender la actual Ley del sistema educativo referente a la educación musical, es decir la LOE, hay que remontarse a otras leyes de educación de las cuales voy a explicar lo más significativo en las siguientes líneas.

Hasta la implantación de la LOGSE en 1990, la música no tuvo un espacio curricular en el sistema educativo planteado por la Ley General de 1970 (Villar-Palasí). La aplicación de esta ley supuso una nueva etapa en el sistema educativo Español. Con este nuevo currículo, la música logró la importancia y el espacio educativo que se merecía, obteniendo un espacio independiente y dotándole de los recursos necesarios para estar al mismo nivel que el resto de las áreas curriculares.

En Educación Infantil, se incluyó la música en el área de “Comunicación y Representación”, teniendo ésta un carácter de expresión musical. En Educación Primaria, la educación musical se incluye junto con la plástica, la dramatización, las artes y la cultura en el área de Educación Artística, pero se determina que la persona que imparta música ha de ser un maestro especialista en la materia.

En Educación Secundaria, el área de música presenta un carácter totalmente independiente estando organizado el currículo en seis bloques temáticos. Consecuentemente, podemos decir que se intenta hacer una educación musical más práctica y menos teórica. La carga lectiva asignada para esta área, fueron dos horas para los tres primeros cursos y una optativa de tres horas para cuarto.

En cuanto al Bachillerato, y siempre según la LOGSE, no se contempla un Bachillerato Musical aunque si, se puede ofertar la asignatura de música como optativa, a partir de la Reforma de las Humanidades en el año 2000.

Avanzando en el tiempo, en el año 2002, se promulgó una nueva ley: La Ley Orgánica de Calidad de la Educación (LOCE), que pretendía reformar y mejorar la educación. Esta ley no llegara a aplicarse, pero por lo que respecta a la educación musical, hay pequeñas variaciones en secundaria, donde perderá carga lectiva, no así en las etapas de Infantil, Primaria o Bachillerato.

En el año 2006, nace una nueva ley Orgánica: La LOE, que deroga la anterior ley de educación, cuyos principios fundamentales son, la calidad la equidad, el esfuerzo compartido y el compromiso con la Unión Europea.

¿Y a partir de ahora qué nueva ley de educación se aplicará? Como ya está publicado, sabemos que el año que viene se aplicará una nueva ley de educación, la LOMCE (Ley Orgánica Mejora Calidad de la Enseñanza). En nuestra comunidad y según el consejero de Educación, el Sr. Iribas, en su última comparecencia en el parlamento de Navarra, en comisión parlamentaria el día 24 de abril de 2014, dijo que esta nueva ley se aplicará en el siguiente curso 2014-2015 en los niveles impares, es decir en primero, tercero y quinto de primaria, manteniéndose la educación musical con las características y carga lectiva como la conocemos hoy en día.

## 3. MATERIALAK ETA METODOAK

Proiektu honen mamia kontzertu didaktikoak izanik, argi dago elementu honen definizio eta azalpen sendo baten beharra dagoela. Hala ere, lehenik gaian

adituak diren autore ezberdinek kontzertu didaktikoen inguruan esaten dutena aipatuko dut, bukaeran, hori guztia kontuan harturik kontzertu didaktikoaren definizio sendo bat eraikiz.

### 3.1. Mari Carmen Ortega Prada

CRIF-eko, kirol, kultura hezkuntza eta hezkuntza artistikoko departamentu buruak, Mari Carmen Ortega Prada izenekoak, kontzertu didaktikoen ezagupenak azalerazten dizkigu, hauen sormena, planteamendu didaktiko baten eskutik hasten denaren ideia defendatuz. Departamentu buruaren hitzetan “todo concierto didáctico debe concebirse desde unos planteamientos didácticos que pauten las condiciones de producción y realización de los escolares a quienes se dirige” (Ortega Prada, 2009, 45)

Hasteko, kontzertu didaktiko baten diseinu eta ekoizpenean, argi dago funtsezko elementu batzuen beharra dagoela: lehenik, kontzertu didaktikoan proposatuko den guztia bilduko duen aurretiko gidoi bat egitea beharrezkoa da. Gainera, kontzertuaren musika eta interpretatzaileen kalitatea ona izateren beharra dagoela ere azpimarratzen du. Honez gain, kontzertu didaktikoa aurkeztuko duen aurkezle bat beharrezko da eta honek, kontzertua modu egokian aurrera eramateko, gidoi garatu baten beharra eskatzen du. Bukatzeko, emakume honek kontzertuaren hartzaileek bertan parte hartzearen aukera dagoela dio, hau beti ere kontzertuaren egileek erabakiko dutelarik.

Ortegak dioen bezala, “en nuestro caso, un concierto didáctico debiera ser una herramienta fundamental de apoyo a la tarea docente que derive en un experiencia musical, humana y de crecimiento personal de gran relevancia para nuestros escolares”. (Ortega Prada, 2009, 45)

Batzuetan, gauzak errazagoak ikusi eta ulertzen dira, hauek modu ezezkoan azaltzen baldin badira. Horrexegatik, kontzertu didaktiko bat zer ez den argi eta garbi daukadanez, ondorengo lerroetan kontzertu didaktiko bat nolakoa ez litzatekeen izan behar laburbildurik azalduko da, modu honetara kontzertu didaktiko baten sorkuntzari ekiteko momentua iristean, konturatuko gara zer den ekidin behar duguna .

Hasteko,kontzertu didaktiko baten publikoari garrantzi handia ematen zaionez, ezinezkoa litzateke kontzertu baten proposamena egitea, lehenik publikoaren ezaugarriak aztertu gabe, hau da, adina, gaitasunak, jatorria, ezagupen musikalak … honek ez lukeelako inolako zentzurik izanen. Mari Carmenen hitzak jarraituz, “un concierto didáctico no debería ser un espectáculo que no reconoce ni aprovecha los conocimientos previos, la experiencia musical de los escolares a los que supuestamente se dirige y sin ningún tipo de planteamientos pedagógicos” (Ortega Prada, 2009, 47)

Jarraitzeko,kontzertu didaktikoak ez dira talde musikalak etorkizun batean ezagunak izatearen bidea irekitzen dion tresna izan behar, beti ere, hauek planteatzen direnean umeei begira egin behar dira eta ez musikarien etorkizunera begira. Gillian Mooreren hitzetan “Hay que pensar en los niños como audiencia no en el futuro, sino ya” (Palomares y Roldán, 1998, 67)

Kontzertu didaktikoen ezaugarriekin jarraituz, hirugarren elementuan esan dezakegu, ezinezkoa litzaketela, kontzertu didaktikoa burutuko duten pertsonaiek, hau burutzea aurretiko entsaiorik egin gabe, hau da, kontzertuan parte hartuko duten pertsona guztiek (musikariek, aurkezleak, antzezleek, teknikariak … ) kontzertua burutzerakoan, egin behar duten guztia aurretik jakin eta menperatu behar dute. Izan ere, hau horrela ez bada, hartzaileei errespetua galtzen ari zaie, hauek, bere osotasunean garatutako kontzertu didaktiko bat ikustearen helburua baitute. Esandako hau, argi eta garbi ikus daiteke autorearen hitzetan “De nuevo, si no ha habido una preparación seria se está minusvalorando el hecho educativo y a los sujetos a quienes va dirigido” (Ortega Prada, 2009, 47).

Kontzertu didaktikoaren entzuleekin jarraituz,kontzertu didaktiko bat ez da gertaera itxi bat bezala ikusi behar, non ikasleek denbora libre, festa bat edo txango bat bezala ikusten duten. Horrexegatik, kontzertua baino lehen eta ondotik, honekin zerikusia duten jarduerak landu behar dira kontzertura joanen diren ikasle guztiekin, hauek kontzertua bestelako jarduerekin nahastu ez dezaten.

Kontzertu didaktiko bat zer ez lukeen izan behar azaldu eta jakinik, kontzertu bati, kontzertu didaktikoa deitu ahal izateko, honek bete behar dituen gutxienezko ezaugarrien defentsa eginen da.

Argi dago, kontzertu didaktikoen funtsa, kalitatezko musikaren bidez ikasleak heztea dela, horretarako, lehenik eta behin beharrezkoa da ongi azaltzea, zer den kontzertuarekin proposatu nahi dena, hori nola proposatuko den eta nori proposatuko zaion.

Autorearen ideiak jarraituz, ondorengoak dira kontzertu didaktiko guztiek behar beharrezkoak izan eta bete behar dituzten elementuak.Proposatuko den kontzertuak elementu hauek falta baldin balditu, ezingo da kontzertua behar bezala garatu eta gainera, ez dira planteaturiko helburuak lortuko. Ondorengoak dira elementuak: aurretiko gidoi bat, kalitatezko interpretazio musikala, aurkezpen bat, kontzertuaren aurretiko eta ondorengo jarduerak, publikoaren partizipazioa eta kontzertuaren iraupena.

Aurretiko gidoi baten beharra dagoela esatean,kontzertuaren garapena azalduko duen ongi planifikatutako gidoi bati egiten zaio erreferentzia, beti ere proposatutakoari zentzua emanez. Oso garrantzitsua da kontzertuak kalitatezko interpretazio musikala eskaintzea, autorearen hitzek defendatzen duten bezala "el público joven o escolar es tan exigente o más que cualquier otro, detectando inmediatamente la implicación y seriedad de los activos musicales del concierto." (Ortega Prada, 2009, 49). Hirugarren osagaitzat, kontzertuaren gaiari hurbilduko den aurkezpen bat izatearen beharrari ematen zaio garrantzia. Honen funtsa, gauzak beraien artean lotzea izanen da, baina inoiz ez beraien artean oztopoak sortzea. Kontzertuaren aurretiko eta ondorengo jarduerak egitearen beharra ere ikusten da, ikasleek lehenik irakasleekin landurik kontzertu didaktikora ezagutza batekin joatea eta hau bukatzean, hau gelan lantzen jarraitzea. Bukatzeko, kontzertuaren denboralizazioa hasieratik finkatzea da egokiena, honen iraupena ordu bete eta ordu terdiren bitartean izanik. Publikoak kontzertu didaktikoan parte hartzea oso garrantzitsua da, ez soilik musikaren erritmoa jarraitzeko txaloak emanik, baizik eta antzezpenak egiten, abesten … bezalako ekintzak eginez. .

## 3.2. Juan Pérez Rodríguez

Sevillako Cristobal de Morales kontserbatorioko, Juan Perez Rodriguez irakasleak ere, Mari Carmen Ortega Pradak bezala kontzertu didaktikoei buruzko edukiak azalerazten dizkigu “Leeme” izenez harturiko aldizkarian.

Musikaren kontzeptua aldatzen joan da denboraren poderioz, hasieran entzute hutsa zena, gaur egun musika bati testua, irudiak edo narrazioa atxikitu diezaiokegu, hau da, modu honetara entzunaldi hauek, kontzertu didaktikoak bilakatzen dira. Autorearen hitzak jarraituz “La escucha pura y abstracta de la música es cada vez más una excepción, y la música aparece, cada vez más, como un elemento parcial en un cuadro complejo en el que se incluyen imagen, texto, narración, etc.” (Pérez Rodríguez, 2003, 2). Argi izan behar dugu kontzertu didaktikoak ez direla gaur egun sortu den zerbait, berrogeita hamargarren hamarkadan Leonard Bernstein Estatu Batuetako telebistetan azaleratuak izaten ziren gazteentzako kontzertuak egiten hasi bai zen. Hori, Nueva Yorkeko filarmonikaren laguntzarekin egin zuen eta bertan, kontzertu didaktikoen oinarriak finkatu zituen.

Autorearen ideiarekin bat egonik, kontzertu didaktiko on batek mota guztietako publikoarentzat musika eskaini behar du dio eta hau bere osotasunean garatua izateko hainbat ezaugarri bete behar ditu. Alde batetik, kontzertuaren aurretiko prestaketa bat egitearen beharra dago. Bertan, irakasleentzat informazio bilerak egin behar dira eta proposatutako kontzertua publikoak ere parte hartzeko diseinatuta egon behar da. Honez gain, hau eskola batean burutua izateko aukera ere badago. Beste alde batetik, kontzertua burutzeko momentua da, non proposatutako kontzertuaren atal nagusiari garrantzia eman behar zaion eta aurretik aipatu bezala, bertan publikoak aktiboki jardutea garrantzitsua da. Bukatzeko, kontzertu didaktikoaren ebaluaketa bat egitearen beharra dago, non honen nolakotasunez hitz eginen den.

Honez gain, kontzertu didaktikoen plangintza eta egitura nolakoa izan behar den azaltzea komenigarria da.  Kontzertu didaktiko batean lortu nahi dena ez da publikoa aspertzea, baizik eta, publiko honek kontzertua zerbait berezia,

magikoa eta apartekoa izatearen sentsazioarekin geratzea du helburu. Perezek argitzen duen moduan,“El momento de un concierto didáctico es algo extraordinario, único, mágico, silencioso, concentrado y de gran actividad interior, lo cual no quiere decir, en absoluto, que tenga que ser aburrido” (Pérez Rodríguez, 2003, 3). Kontzertu didaktiko guztiek, aldez aurretiko iraupen finko bat ezartzearen beharra daukate eta hau ordu batekoa izatea litzateke hoberena. Aipatu bezala, kontzertu didaktiko orok publikoak ongi pasatzearen helburu du, horretarako proposatutako kontzertua honi modu egokian zuzendurik egon behar du. Kontzertuan garrantzi handia daukan pertsonaia bat badago ere, aurkezle edo musika animatzailea izena harturik. Honek, kontzertuan zehar musikak esaten duena transmititzen digu eta publikoa entzunaldiaren bidez gidatzen dituena. Pertsonai honen lana ez da bozgogarailu baten bidez hitzaldi bat ematea baizik eta, kontzertua dinamizatu hau hezkuntza esperientzia bat izan dadin. Azken finean aurkezleak, musika eta publikoa batu egiten ditu, ondorioz, publikoa entzule pasiboak izan beharrean, entzule aktiboak bihurtzen dira, kontzertuan parte hartzen dutelako.

Bukatzeko, Perezen esanetan kontzertu didaktikoak, “Son prácticas culturales para cuyo cumplimiento se precisa convicción, entusiasmo y paciencia” (Pérez Rodríguez, 2003, 3). Honen helburua, musika modurik hoberenean gozatzea da.

### 3.3. Kontzertu didaktikoak

Aurreko lerroetan aipaturiko adituen teoriak jarraituz, komenigarria ikusten dut azaltzea kontzertu didaktikoen inguruko nire ekarpena.

Kontuan hartuz hezkuntza musikalaren helbururik garrantzitsuena, sentsibilitate musikalaren garapena, musikaren bizipena, musikaren bitartez komunikazioa eta adierazpena garatzea baldin badira, ezinezkoa da musika hezkuntza orokorra ulertzea, bertan entzunaldirik ez baldin badago. Horrexegatik, uste dut kontzertu didaktikoa bide egokiena dela ikasleei zuzenezko musika eta entzunaldietara gerturatzeko.

Kontzertu didaktiko bat, ez da inondik inora kontzertu bat non musikariek beraien trebetasunak, esperientzia eza-ko publiko bati erakusten dieten, hau da, publikoa kontuan hartzen ez duen ikuskizun bat. Ez da aurkezlearen inprobisazioa lantzeko kontzertu bat, ikus entzuleak gaizki pasatzeko momentua ezta musikariek entsaiatzeko momentua erez.

Kontzertu didaktiko bat, hori dena baino askoz ere gehiago da.

Mota honetako kontzertu batean, musikariek beraien trebetasunak publiko jakin bati zuzendu behar diete momentu oro hauek kontuan hartzen dituztelarik. Gainera, musikariek baita aurkezleak ere,kontzertua baino lehenagoko entsaioakegitea beharrezkoa da, zuzeneko inprobisazioa izan ez dadin. Horrelako kontzertu motetan, ikusleak kontzertua bukatzean zerbait berria ikasi duenaren sentsazioarekin atera behar da.

Kontzertu Didaktikoak, musikara produkzio eta interpretazio baldintza onenetan hurbiltzea errazten duen ekintza hezitzaile indartsu gisa aurkezten dira. Ume, gazte zein familiak, zuzeneko musikaren esperientziarekin harremanetan jartzen ditu, egoera eta entzuleri bakoitzera egokitutako prozedura didaktikoak erabiliz.Gainera, kritiko eta parte hartzaileagoa izango den publiko berri baten eraketari mesede egiten diote.

Argi dago kontzertu didaktikoek funtsa batekin egiten direla, hauek helburu batzuk dituztelarik; kontzertu didaktikoek duten helbururik garrantzitsuenetako bat, umeengan musika zaletasuna txikitatik bultzatzea da.Hau da, umeari txikitatik erakutsi behar zaio musikarekin bizitzen, honek pixkanaka pixkanaka musikaren munduan murgiltzen hasteko eta ea musikarengan zaletasuna duen ikusteko. Bertan, ikus entzuleok ze edo zer ikasi behar dute. Honez gain, musikaz gozatzearen eta musika ikasteko interesa sortzea ere bada helburu garrantzitsu bat. Argi izan behar dugu, pertsona guztiok ez dugula berdin sentitzen musika, batzuk hau entzutean ez dute ezer berezirik sentitzen. Kasu honetan ezin diogu pertsona honi sentimendu hori sentitzera behartu, hori barrenetik sortzen den gauza bat baita, baina bai sentimendu hori sentitzera lagundu. Beste batzuk aldiz, musikarengan sekulako sentiberatasuna daukate eta hau entzutean sekulako gozamena sentitzen dute. Beste alde batetik,

umeen kritikotasun musikala garatzea ere bada kontzertu didaktikoen helburuetako bat, musikarekin kritikoak izaten ikasi behar bai dugu.

*3.3.1. Kontzertu didaktikoen helburuak*

Kontzertu didaktiko guztiek, helburu orokor batzuk dituzte eta Victor Neumanek oso argi azaltzen ditu zein diren behar beharrezkoak diren helburu orokor horiek (Neuman,2004, p.21) :

- *Musika eduki ezberdinak daudela jakin eta ezberdindu.*
- *Kontzertuetara maizago joateko desioa piztu.*
- *Entzumen integrala, inteligentzia eta adierazpen musikala eta publiko berriaren kritika garatzea.*
- *Manifestazio musikal ezberdinak, baloratzen eta gozatzen lagundu.*
- *Haur, gazte bai helduak, zuzenezko musikaren garrantziaz ohartaraztea.*
- *Zuzenezko musika entzuteko, ohiko portaeraren arauak ikasi.*
- *Publikoari, musikarien irudi faltsua eta hurbilago bat erraztu.*

Victor Neumanek, kontzertu didaktikoei ezarritako helburuak kontuan hartu ez gero, nik proposatu dudan kontzertu didaktikoaren helburu zehatzak finkatuko ditut.

*3.3.2. Kontzertu didaktikoen beharrezko elementuak*

Kontzertu didaktiko bat bere osotasunean garatua izan dadin, beharrezkoa da ondorengo elementu hauek kontuan hartzea:

*3.3.2.1.Gidoia*

Kontzertu didaktiko bat burutzeko, bertan eginen den guztia, gidoi batean azalduko beharko da, hau da, argiak, jantziak, narrazioak, antzezpenak, aurkezpenak … hau guztia, kontzertua egin baino lehenago bete beharko da.

*3.3.2.1.1. Gidoi baten planifikazioa*

Esan bezala, kontzertu didaktiko guztiek gidoi bat izatea, behar beharrezkoa dute eta honek, aurretiko planifikazio baten beharra du ere. Gidoi baten planifikazioak, honako elementuen beharra dauka:

- Lehenik eta behin, kontzertu didaktikoaren *hartzailea* nor izanen den jakin beharko dugu, hau da, ikus entzuleak zein adin tartekoak izango diren. Hauen adin tartea azterturik, kontuan hartu beharko dugu erabiltzen ditugun hitzak, egoerak eta ideiak. Gainera, beraiek kontzertu didaktiko berean parte hartzeko gai izanen direla pentsatzea beharrezkoa da.

- Hori jakinik, oso argi izan behar dugu gure kontzertuarekin *lortu nahi duguna* (helburuak) beti ere, gure publikoaren beharrak zeintzuk diren eta zaletasunei begira eraikiko ditugu kontzertuaren helburuak. Helburu pedagogikoak, ongi zehaztuak egon beharko dira aldez aurretik eta kontzertua ondoren, hauek bete ote diren balorazioa egin behar da.

- Hau guztia kontuan hartuz, gure *errepertorioa* zein izango den aukeratu beharko dugu, beti ere, gure publikoari erreferentzia eginez. Ikus entzuleen adina jakinik, errepertorio bat edo beste aukeratu dugu, adin tarte bakoitzaren gaitasunak kontuan harturik.Argi dago gure publikoak ongi pasatzearen helburuarekin etorri dela kontzertua ikustera, beraz, komenigarria da bertatik sentsazio horrekin ateratzea, hauek kontzertu didaktikoetara joateko ohitura hartzeko.

- Kontzertu guztiek bezala, kontzertu didaktikoek ere *aurkezle* bat izango dute, baina hau, planteatu den kontzertu motaren arabera, modu batekoa edo bestekoa izanen da. Hau da, alde batetik aurkezlea narratzaile soil bat izatearen aukera du, zeinak kontzertua aurkezten duen eta beharrezkoa denean isildu egiten da instrumentuen txanda izateko. Aurkezlea, eszenarioaren alde batean geldi egotearen aukera du edo nahi izanez gero, alde batetik bestera mugitzeko aukera badu ere. Beste alde batetik, aurkezlea kontzertu didaktikoan garatuko den istorioaren

- protagonista bera izan daiteke. Hau horrela izanik, protagonista/aurkezlea, gainontzeko pertsonaiak baino gehiago nabarmenduko da, kontzertuan bera izango baita pertsonarik garrantzitsuenetariko bat.

- Protagonistaz gain, *pertsonaia arruntak* daude zeinak istorioan parte hartzaileak diren ere. Kontzertuaren gidoia prestatzerakoan kontuan hartu behar dugu zenbat pertsonaiarekin kontatzen ahal dugun.Honez gain, pertsonai hauetariko bakoitzaren gaitasun eta ahuldadeak ere aldez aurretik ezagutu beharko ditugu, gure errepertorioa garatzeko. Gainera, aurretik esan bezala, kontzertu didaktiko bat ez da, inprobisaziozko kontzertu bat, baizik eta aurretik landuko zerbait. Beraz, pertsonaiak kontzertua baino lehen, entsaioak egin beharko dituzte, antzezpena ongi ateratzen den ziurtatzeko. Hala ere, kasu batzuetan hainbat arrazoiengatik pertsonaiak urduritzen dira eta inprobisaziora jo behar dute, beraien hitzak edo antzezpena atzendu badute. Horrexegatik, pertsonaiak inprobisazioa lantzea ere komenigarria da, horrelako kasuren bat gertatu ez gero, egoera horretatik atera ahal izateko.

- Pertsonai guzti hauek, prestatuko kontzertu didaktikoa, *espazio fisikoren* batean egin beharko dute, hau da, antzezteko espazio egoki bat prestatzea behar beharrezkoa da. Oso garrantzitsua da, kontzertua garatzeko aukeratzen dugun espazioa egokia izatea, espazio honek behar izanen ditugun materialak edo dena delakoa izan beharko ditu kontzertua behar bezala garatzeko. Honez gain, kontzertua noiz eginen den zehaztu beharko da, izan ere, kontzertu didaktikoan proposatzen denaren arabera, data bat edo beste aukeratu beharko dugu. Izan ere, ez da berdina kontzertua eskolako patioan egitea eta hau, abenduan izatea edo eskolako patioan egitea baina uztailean. Gauza hauek kontuan hartzen ez badira, gure planak guztiz aldatzeko aukera dago.

- Baldin eta zein kontzertu didaktiko mota egiteko asmoa dagoen, espezialista *teknikoen (*argi, arropa, soinu … espezialistak)beharra izan beharko da. Hau da, kontzertu didaktikoa gauzatuko den lekuaren arabera,

- argi, soinu, efektu, jantzien teknikariak behar izanen dira, gauza guzti hauek martxan jartzeko eta behar den momentuan erabiliak izateko.

- Hala ere, aurreko guztia egin baino lehen, kontuan hartu beharko dugu ea guzti hau ordaintzeko nahiko *diru* izanen dugun. Horrela bada, proiektuarekin aurrera jarraitu ahalko dugu, baina ohartzen bagara gure proiektua garatzeko horren beste diru ez dugula, aurretik gure planak aldatu beharko ditugu, ondoren arazoak ez izateko.

- Aurreko guztia kontuan izanik, kalkulatu beharko dugu zenbat *denbora* behar den kontzertu guztia gauzatzeko. Honen iraupena ez da ez sobera motza, ez haurrak aspertzeko sobera luzea izan behar. Horrexegatik, denboralizazioa ongi zehaztea oso garrantzitsua da. Mari Carmen Ortega Prada adituak dioenez, kontzertu didaktiko baten denboralizazioa ordu betekoa izan behar da.

Kontzertu didaktikoak sortzeko beharrezko elementua guztiak kontuan hartuz, elementu hauek, guk proposatutako kontzertu didaktikoan aplikatuko ditugu 4.1.5. puntuan

*3.3.2.2.Publikoaren elkarrekintza*

Komenigarria eta interesgarria da, kontzertu didaktikoetan publikoak, modu batera edo beste batera, bertan parte hartzea. Argi dago publikoak modu askotara parte hartzen al duela, txaloak ematen, oihukatzen … hau baino gehiago da publikoak har dezakeen inplikazioa kontzertu didaktiko batean, izan ere, hauek kontzertuan antzezle gisa jardun dezakete. Oso garrantzitsua da ikus-entzuleak kontzertu didaktikoan antzezpena bezalako modu zuzenago batean parte hartzea, honen partaide sentituko baitira.

3.3.2.3. *Interpretazioaren kalitatea*

Kontzertu didaktiko guztiek, ikus-entzuleen atentzioa lortzea behar du, bestela hauek aspertu eginen dira. Horretarako, interpretatuko dena, gure hartzaileen adinetarako interesgarria izan behar da, hauen atentzioa deitzeko. Ortegak (2009) dion bezala, “el público joven o escolares tan exigente o

Más que cualquier otro, detectando inmediatamente la implicación y "seriedad" de los activos musicales del concierto" (p.49).

*3.3.2.4. Aurkezpena*

Kontzertu didaktiko guztiek, hasiera eta bukaerako aurkezpen bat izatearen premia dago; kontzertu didaktikoari hasiera emanen dion eta bertan eginen den azalduko duen aurkezpen soil bat eta bukaeran, kontzertua agurtzeko beste esaldiren bat, astuna izan gabe. Ortegak (2009) dioen bezala, "Una presentación que acerque al hecho musical, que cree lazos y que no estorbe o entorpezca la experiencia de inmersión en ese "mundo mágico" que empieza donde terminan las palabras" (p.49)

Hala eta guztiz ere, kontzertu didaktiko ezberdin asko daudenez, kontzertuaren erdian aurkezpenak egitearen aukera ere badago.

*3.3.2.5. Denboralizazioa*

Kontzertu didaktiko baten gidoiaren planifikazioa egiterako orduan, kontuan hartu behar dugu zenbat denbora iraungo duen kontzertuak. Hau oso garrantzitsua da, izan ere, ezin dugu kontzertu bat sobera luzea egin bertako ikus-entzuleak aspertu egingo baitira. Beraz, horrelakorik gera ez dadin, kontzertuari denboralizazio egoki bat ezarri behar zaio. Ortegaren (2009) esanetan "La duración total de la sesión podría establecerse entre la hora y la hora y media sin descanso" (p.51).

*3.3.2.6.Ebaluazioa*

Ebaluazioa ere, kontzertu didaktikoak sortzeko beharrezko elementua da. Ebaluazioa, kontzertua bukatzean egiten da eta bertan, kontzertua nola garatu den aztertuko da; gidoia egokia den, erabilitako errekurtsoak, denboralizazioa…

Guzti honen balorazio bat egitea beharrezkoa da, etorkizun batean hau hobetzearen asmoarekin. Argi izan behar da balorazioa ez dela, kritika gisa eginen den zerbait, baizik eta kontzertuaren garapenean parte hartu duten pertsonek (aurkezleak, hartzaileak, musikariak, teknikariak, irakasleak …) beraien etorkizunean kontzertu didaktikoen gainean mota guztietako hobekuntzak egin ahal izateko.

### 3.4. Zer dira musikogramak?

Ondoren ikusiko dugun bezala, proposatutako kontzertu didaktikoaren lanketa, Antonio Vivaldiren "Las Cuatro Estaciones, La Caza," obrarekin Freixiónosek egindako musikograman oinarriturik eginen dugu. Horretarako, lehenik musikogramari buruzko hainbat azalpen eginen ditut eta ondoren, Freixinósen lanari buruzko hainbat aipamen.

Komenigarria da galdera hau planteatzea musikogramen azalpenarekin hasi baino lehen: Musika ikus dezakegu?

Argi dago ezetz, musika ezin da ikusi, hau entzun dezakegu soilik, baina musikograma izeneko tresnari esker, musika obra batek interpretatzen duena ikusteko gai izanen gara, tresna honen helburua, elementu bisualak, marrazkiak, eskemak … erabiliz, ulermen musikala erraztea baita.

Musikograma bat, musika ulertzen, begiratzen eta modu aktiboan entzuten laguntzen duen marrazki edo grafikoa da. Tresna honek, momentu bakoitzean irakasleari gehien interesatzen zaion alderdi musikala jorratzeko aukera ematen dio ere. Horrexegatik, gure musikograma propioa sortzen baldin badugu, nahi dugun egitura, melodia, erritmoa edo instrumentuetan zentratzen ahal gara, garrantzitsuena grafikoek ikasleei ulertzen lagundu eta hauek entzumenean inplikatzea baita.

Gainera, musikogramei esker ere, elementu musikalen eta bisualen artean sortzen ahal ditugun erlazioak aipatzekoak dira, haien artean, obraren soinuak naturaren soinuekin erlazionatu dezakegu, musikogramaren elementuen koloreak tonalitate ezberdinekin, intentsitate musikala argazkien tamainekin … musikograman plazarazten dizkigun aukera guzti hauekin, ikasleek hauen lanketarekin, imajinazioa eta intuizio musikala garatu dezakete.

Musikogramaren kontzeptua, Belgikako Joss Wytack izeneko pedagogoak sortu zuen 1970.urtearen hasieran. Pedagogo honen helburua, musika ez zekiten gazteei ulermen musikala erraztea zen. Wytacek bere esperientzia pertsonalean oinarrituz, entzunaldi aktiboa garatzeko metodo bat sortu zuen,

ikasle batzuk partitura bat irakurtzeko gai ez diren ideiatik abiatuz. Ikusten dugunez, pedagogo honen nahia, mota guztietako ikasleei musika hurbiltzea zela, hauek ere, honekin disfrutatzeko parte hartzeko eta ulertzeko.

Proiektu honetan proposatu dudan kontzertu didaktikoa garatzeko, beharrezko izan zaidan tresnaren istorioa, hau da musikograma, pixka bat ezagutu ez gero, nik erabiliko dudan musikogramaz eta honen sortzaileaz hitz eginen dut.

Antonio Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La caza” obra lantzeko, Juan Fernandez Freixinósek, obra honen gainean egindako musikograma erabiliko dut, zeinari musikogramen munduan lan asko egin dituen artista bezala ezagutzen zaion. Bertan, Freixinósek oreina baten ehizaren istorioa kontatzen du eta horretarako oreina, ehiztariak, txakurrak, tronpa joleak eta herritarren marrazkiak erabiltzen ditu. Honez gain, oreinaren marrazkia agertzen den guzietan, hau inguratuko duen baso berde eta malkartsuak marrazten ditu.

# 4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

## 4.1. Kontzertu didaktikoaren diseinua: Oreina eta ehiztaria

Ondorengo lerroetan, proiektu honen atal praktikoan proposatu dudana azalduko dut, hau da, kontzertu didaktiko bat burutzea izan da nire proposamena eta orain, honen sorkuntzaren garapena nola burutu dudan azalduko dut.

### *4.1.1. kontzertu didaktikoaren aurkezpena*

Proposatu dudan kontzertu didaktiko hau, hasiera batean lehen hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren mailako ikasleentzat proposaturik dago, hauek izanen dira kontzertu didaktikoari hasiera eta bukaera emanen diotenak, hau da, hirugarren mailako ikasleak protagonista garrantzitsuenak izanen dira.Gainera, lehen hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek ere, kontzertu didaktikoan parte hartuko dute, baina hauek kontzertuaren bigarren protagonistak izanen dira.

Proposatutako kontzertu didaktiko honek, Freixinósek Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” obran oinarrituz Freixinósek egindako musikogramarekin burutuko da, ikasleak tresna hau ezagutu eta honekin lan

egiteko aukera izatearen pentsamenduarekin. Hasiera batetik, kontzertu entretenigarri bat lortzeko helburuarekin, Vivaldiren obraren esaldi musikal ezberdinak antzematez, antzerki txiki bat sortuko dute lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleek, baita kontzertuaren hartzaileek ere.

Horretarako, datozen lerroetan proposatutako kontzertu didaktiko honetarako helburuak finkatu ditut.

### *4.1.2. Materiala*

Kontzertu didaktiko hau egiteko material ezberdinen erabilpena egin da. Alde batetik, Antonio Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones” obraren “Otoño” zatiaren “La caza” zatitxoa erabiliko da. Bestetik, obra hau ikasleek antzeztu ahal izateko, Juan Fernandez Freixinósek obra honen gainean sortutako musikograma erabiliko da, non oreina baten istorioa kontatzen den.

Guzti hau lehenik, ikastetxeko musika gelan landuko da eta horretarako, “Oreina eta ehiztaria” istoriotxoa errepresentatzeko ikasle bakoitzari pertsonai ezberdin bat banatuko zaio eta pertsonai bakoitza ezberdintzeko elementu ezberdinak erabiliko dira:

- Ehiztariei globoak banatuko zaizkie
- Tronpa joleak paperezko tronpa bat izanen du eskuetan.
- Herritarrek danborrak joko dituzte.

Oreina eta txakurrei ez zaie ezer banatuko, hauen papera erraz ezberdintzen baitira, izan ere, gelatik bata bestearen korrika ibiliko dira.

Behin gelan ikasleek antzezpena bere osotasunean ikastean, kontzertu didaktiko bat eginen da lehen hezkuntzako lehendabiziko zikloko ikasleentzat zuzendurik. Kontzertu hau, herriko zineman eginen da, beraz, bertan argiak, bozgoragailuak eta proiektore egoki baten beharra izanen dugu, musikograma bertan proiektatu nahi baita. Honez gain, musikariak esertzeko eserleku egokiak eta partiturak eusteko atrilak.

Metodologiari dagokionez, ikasleei metodologia aktiboa eta partizipatiboa eskainiko zaie.

*4.1.3. Helburu zehatzak*

Aurretik aipatu bezala, kontzertu didaktiko guztiek helburu orokor batzuk dituzte eta helburu horietan oinarrituz, nik nire kontzertu didaktikoaren proposamenerako finkatu ditudan helburuak azalduko ditut ondorengo lerroetan:

- *Ikasleek, Antonio Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La caza” obra, bere osotasunean antzematea.*

  Hau, partitura ez den beste tresna baten bidez eginen da. Freixinósek Vivaldiren obran oinarriturik egindako musikogramaren bidez hain zuzen ere.
- *Grafia ez konbentzionalak erabilita, musika lan baten garapena jarraitzea.*

  Gaur egungo musika hezkuntza dela eta, badirudi musika irakurtzeko baliabide bat soilik dagoela. Pentsamendu hau aldatzearen helburuarekin, haur, gazte zein helduak musikogramen existentziaz jabetzea beharrezkoa da. Gainera, haurrentzat errazagoa da musikogramen bidez musika irakurtzea, izan ere, “Las cuatro estaciones” bezalako obra luze bat, marrazki soil eta dibertigarri batzuen bitartez irakur dezakete, hau notez beteriko partitura bat irakurri baino.
- *Kontzertuan agertuko diren musika tresna ezberdinak ezberdintzen jakitea.*

  Kontzertuan, Euskadiko orkestrako lau musikari ( bi biolin, biola eta kontrabaxua) etorriko dira eta hasiera batean aurkezleak instrumentu hauei sarrera bat eginen die.Ondoren musikariek “Oreina eta ehiztariaren” istorioaren pertsonai bakoitzari egokitzen zaion obraren esaldi musikala joko dute eta ikasleak hauen soinua entzunda pixkanaka-pixkanaka hauen ezberdintasunez ohartzen joanen dira.

- *Antonio Vivaldiren obraren esaldi musikal ezberdinak ezberdintzea.*

  Antonio Vivaldiren obran oinarrituriko Freixinósen musikogramak kontatzen duen istoriotxoaren pertsonai bakoitzari, “Las

Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” obraren esaldi musikal bat egokitzen zaio. Ikasleei mailaka istoriotxoaren pertsonai bat edo bat baino gehiago banatuko zaie eta obraren zehar, aurretik egokitu zaien pertsonaiari egokitutako esaldi musikala entzutean, bere pertsonaiaren antzezpena egin beharko du. Horrexegatik, obran zehar esaldi musikal ezberdinak daudela jabetu beharko dira antzezpena aurretik eta maila bakoitzak berea zein den antzeman beharko du.

- *Gorputz adierazpenaren bidez musika esaldien antzezpena.*

  Ikasle bakoitzari egokitu zaion pertsonaia kontuan hartuz eta honi atxikitutako esaldi musikala entzutean, istorioan gertatzen dena antzeztu behar dute ikasleek. Horretarako, ikasle bakoitzak ongi identifikatu behar izan du bere pertsonaiari egokitzen zaion esaldi musikala, hau entzutean antzezpena egin ahal izateko.

- *Haur, gazte bai helduak, zuzenezko musikaren garrantziaz ohartaraztea.*

  Haur, gazte zein helduak zuzenezko musikarekin, bestelako musikarekin bezain beste disfrutatzen ahal dugula erakutsi.

- *Kontzertuetara maizago joateko desioa piztu*.

  Ongi pasatzeearen eta zerbait ezberdina eta berria ikastearen helburuarekin, haur, gazte zein helduak kontzertuetara maiztasun gehiagorekin joatera proposatu.

### *4.1.4. Musikogramaren lanketaren edukiak*

Esan bezala, kontzertu didaktikoa honi helburu batzuk proposatu zaizkio eta helburu horiek lortzeko, Freixiónosek Antonio Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La caza” obraren baitan egindako musikograma erabiliko da.

Musikograma honen lanketak, ondorengo eduki ekarrera suposatzen du:

- *Obraren esaldi musikala.*

  Kontzertu didaktiko hau hasten den momentutik, musikako gelan hain zuzen ere, Vivaldiren obraren esaldi musikal ezberdinen behaketa

landuko da. Ondoren, ikasleei “Oreina eta ehiztari”-aren ipuinaren pertsonai bat banatuko zaie eta hauetariko bat, esaldi musikal ezberdin bat izanen du. Ikasleek obra entzutean, beraiei egokitutako esaldi musikala antzeman beharko dute.

- *Musikogramen ezaugarriak.*

  Proposatutako kontzertu didaktikoan, musikogramen lanketan oinarrituko garenez, beharrezkoa da ikasleei trena honen berri ematea, izan ere, hau egiten ez bada,  ikasleak ez dute jakinen ze motatako tresnarekin la egiten ari diren eta ez dute hau, behar den bezala baloratuko.

- *Gorputz adierazpena*

  Proposamen honek, ikasleek musikogramean kontatzen den istorioan oinarrituz, antzerki bat sortzea du helburu. Gainera, oso garrantzitsua da lehen hezkuntzako ikasleek, kasu honetan, bigarren zikloko hirugarren mailako ikasleek beraien sentimenduak gorputz adierazpenaren bidez adieraztea.

*4.1.5. Proposatutako kontzertu didaktikoaren gidoiaren plangintza*

Aurretik esan bezala, kontzertu didaktiko orok, beharrezko elementu batzuk behar ditu kontzertua bere osotasunean garatu ditzan, horien artean gidoiaren plangintza. Hona hemen, nik proposatutako kontzertu didaktikoaren gidoiaren plangintza:

- Proposatutako kontzertuaren hartzailea, 6-7 urte  bitarteko neska mutilak izanen dira, lehen hezkuntzako lehengo zikloko lehen eta bigarren mailako ikasleak hain zuzen ere.Lehendabiziko mailan, 35 ikasle egonen dira guztira, gela batean 15 ikasle eta bestean 20 egonik. Bigarren mailan aldiz, bi gela egonen dira eta gela bakoitzean 15 ikasle. Kontzertu didaktiko honetan, hartzaileek bertan modu aktibo batean parte hartu ahalko dute, kontatuko den istorioaren antzezpen bat eginez.

- Gure publikoaren adin tartea ikusirik, kontzertu didaktiko honekin lortu nahi dugun lehendabiziko gauza, hauek momentu adierazgarri bat izatea da.

- Honez gain, musika irakurtzeko tresna ezberdinak daudela ikustea, hau da, musikogramen erabilpenaz ohartaraztea. Gainera, autore eta musika tresna ezberdinak daudela modu dibertigarri batez ikastea … Publikoaz gain, kontzertuaren egileentzat ere helburu ezberdinak lortzen dira; Antonio Vivaldiren obra bere osotasunean antzematea, erritmoa eta bakoitzaren esaldi musikalak antzematen ikastea, antzezpena garatzea, norberak bere buruarekiko eta besteekiko konfiantza hartzea.

- Errepertorioari dagokionez, Antonio Vivaldiren “Las 4 estaciones, otoño, la caza” obrarekin Freixiónosek egindako musikograma aukeratu dugu, haurrentzako den oreinaren istoriotxo polit bat kontatzen baitu. Modu honetara, haurrak (ikus-entzuleak) kontatutako istoriotxoarekin atxikituko dira eta ez dute kontzentrazioa galduko, istoriotxoa beraien adin tarterako zuzendurik baitago.

- Kontzertu didaktikoaren aurkezleak, hau aurkeztu eginen du baina ez da kontzertuaren antzezlea izanik. Honek, musikogramen azalpena bat emanen du eta kontzertuan zehar egingo dena azalduko du (momentu oro nor sartuko den eszenatokian, antzerkia egiteko pertsonaien banaketa egin … ). Aurkezleak ere, musikograma proiektorean jartzen dutenean eta musikariek musika jotzen dutenean, musikograman makil handi batekin seinalatuz, pultsua jarraitu beharko du.
  Aurkezlea beltzez joanen da, galtza eta kamiseta beltz bat eramanez,
  Baita mikrofono txiki bat ere.

- Esan bezala, antzezlanaren pertsonaiak, bigarren zikloko hirugarren mailako ikasleak izanen dira. Pertsonaiak banatzerako momentuan, bakoitzaren gaitasunak hartuko dira kontuan. Hala ere, behin pertsonaiak banaturik eta antzezpena eginik, pertsonaiaren bat aldatzeko beharra izan ez gero, hau egiteko aukera dago, beti ere, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuz. Aprobetxatuko ditugu denbora tarte guztiak lanketa guzti hau aurrera eramateko. Gainera, ikasleek bada ez bada baliabideak izan behar dituzte, kontzertu didaktikoaren momentuan beraien hitzak atzentzen badituzte, larritasunetik ateratzen jakin ahal izateko. Honez gain,

- hartzaileek ere izango dira kontzertu didaktikoaren pertsonaiak, izan ere, hirugarren mailako ikasleek antzezpena egin baino lehen, aurkezleak kontatutako ipuina antzeztu beharko dute gainontzeko ikasleek, musikariek Vivaldiren obra jotzen duten bitartean.

- Gure kontzertu didaktikoa, herriko zineman eginen da. Bertan, eszenatoki egokia bat baitago eta honez gain, ikus entzuleentzat eserleku ugari. Gainera, teknikariek beraien lanak egiteko aukera daukate ere, izan ere, argiak eta bozgoragailuak erabiltzeko aukera daukate. Teknikariek, bozgoragailuak eta argiak behar den momentuan martxan jarriko dituzte. Hasiera batean, aurkezlea antzeztokira sartzean, argi indartsu batek zuzenki joko dio honen garrantziaz jabetzeko, Euskadiko sinfoniako lau musikariak (bi biolin, biola, eta kontrabaxua) agertzen diren arte. Orduan, beraiek izanen dira protagonista nagusiak eta argia beraiei joko die. Ondoren, argi handi batek zinema guztia argituko du, lehen hezkuntzako ikasle guztiek (lehendabiziko eta bigarren mailako ikasleak), Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” obran oinarrituriko “Oreina eta ehiztaria” ipuinaren antzezpena egiten ari diren bitartean. Hauek antzezpena bukatzean aldiz, argia berriz ere aurkezlearentzat izanen da. Bukatzeko, hirugarren mailako ikasleek gelan landutako Antonio Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” obran oinarrituriko “Oreina eta ehiztaria” antzerkia eginen dutenez, argiak beraientzat eta musikarientzat izanen dira.

- Guk proposatutako kontzertuak ere, ordu bete iraunen du, kontzertuaren atal bakoitzak daukan garrantziaren arabera, behar den denboralizazioa emanen zaiolarik.

### 4.2. Kontzertu didaktikoaren gidoia

Hona hemen, proposatutako kontzertu didaktikoaren gidoia. Pentsatzen dut beharrezkoa dela aipatzea, kontzertu didaktiko honen hasiera, eskola bateko musika gela batean ematen dela lehen hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren mailako ikasleekin eta bukaera, antzerki bat garatuko den ikus-entzulez

beteriko eszenatoki batean. Kontzertu didaktiko honetan, Antonio Vivaldiren "Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza" bere osotasunean landuko da, Freixinosek obra honetan oinarrituz sortutako musikograman oinarrituz.

Beraz, honela hasten da proposatutako kontzertu didaktikoa:
Lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin musika gelan:

- Antonio Vivaldiren argazkia erakutsiko zaie ikasleei eta ea ezagutzen duten galdetuko zaie, ondoren autore honen informazioa emanen zaie (nor zen, non jaio izan zen, noiz jaio zen, bere obrak aipatuko zaizkie, "Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza" izanen dela guk landuko duguna esanez)
- Guk landuko dugun obra jarriko zaie "Las Cuatro estaciones, Otoño, La caza", hau entzun eta ezagutu dezaten. (I. Eranskina)
- Obra entzunda, Freixinos nor zen eta entzun dugun obran oinarriturik, "Oreina eta ehiztaria"-ren istorioa asmatu zuela azalduko zaie,"Oreina eta ehiztaria"-ren istorioa kontatuko zaie.
- Freixinosek Vivaldiren "Las Cuatro Estaciones, Otoño, La caza" obran oinarrituriko musikograma erakutsiko zaie (II. Eranskina) eta beraien ezagutzak jakiteko, zer den galdetuko zaie.
- Ikasleen ezagutzak ezagutu ondoren, laburki musikograma bat zer den azalduko zaie (nork asmatu zuen, noiz eta ondoren gure kasuan oinarrituko gara: Freixionosek egindako musikograman erritmoa nola eramaten den … ) eta kontatutako istorioa, musikograman erakutsitakoa berdina dela erakutsiko zaie.
- Ondoren, obraren erritmo jarraiketa eginen da, irakasleak pultsua musikograman jarraituko du (hiru pultsu koadrotxo bakoitzeko) eta ikasleek, bakoitzak bere mahaian jarraituko du pultsu.
- Azalduko zaie musikograman ikusi duten istoriotxoa, hau da, irakasleak kontatutakoa "oreina eta ehiztaria", beraiek antzeztu beharko dutela.
- Istorioan agertzen diren pertsonai guztien egin beharrak azalduko dira eta ikasleei pertsonaiak banatuko zaizkie.
- Ikasle bakoitza zein pertsonaia egokitu zaion jakin ondoren, "Las cuatro estaciones, Otoño, La caza" obra berriz entzungo da beta azalduko

- zaie, pertsonai bakoitzari obraren zein esaldi musikal egokitzen zaion, hau da, zein momentutan antzeztu behar duen. Pertsonai bakoitzari, elementu bat emanen zaio, honen ezberdinketa egiteko: ehiztariek globo gorri bat eramen dute, tronpa joleek paperezko tronpa bat eta herritarrei danborrak banatuko zaizkie. Oreina eta txakurrei aldiz, ez zaie ezer banatuko, honen eginbeharra korrika egitea baita.
- Behin ikasle bakoitzak bere pertsonaia zein esaldi musikaletan antzeztu behar duen jakin ez gero, gelaren antolaketa eginen da. (III. Eranskina)
- Gela antolatu ez gero, obra jarriko dira eta ikasleak “Oreina eta ehiztaria”-ren istorioa antzezten hasiko dira, irakasleak bakoitzak zein esaldi musikaletan mugitu behar den esanez. Hau, ongi atera arte errepikatuko da.

Behin, lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleek, Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La caza” obran oinarrituz Freixiónosek egindako musikogramaren antzezpena bere osotasunean landuz, kontzertu didaktikoaren lanketara joko dugu:

- Lehen hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak, hau da, lehendabiziko eta bigarren mailakoak, zinemako eserlekuetan eserlekua hartzen joanen dira eta mailaka eseriko dira. Lehendabiziko mailako gela bat 15 ikaslez osaturik egonen da eta bestea 20 ikaslez. Bigarren mailan aldiz, 15 ikasle egonen dira gea bakoitzean. Beraiekin, gela bakoitzeko tutoreak joanen dira kontzertura. (10 minutu)
- (argi indartsu bat aurkezleari zuzenean jo) Aurkezlea beltzez jantzita, eszenatoki erdira aterako da eta zein urtarotan gauden galderarekin, hasiera emanen dio kontzertuari. Aurkezleak urtaro honetan, udazkenean, ehiztariek oreinak ehizatzen dituztela azalduko du eta kontzertu honetan, oreina bati buruzko istorioa kontatzen duen obra bat musikograma baten bidez landuko dugula esango die. Gainera, ikasle batzuek aipatutako oreinaren istorioa antzeztuko dutela azalduko zaie eta beraiek ere antzezpenean parte hartuko dutela. (2 minutu)

- Aurkezleak musikograma hitza aipatu duela esanik, honen definizioa dakiten galdetuko die ikasleei eta hauen erantzunak entzungo dira (argiak ikasleei zuzenduko dira) (30 segundu)
- (Argiak aurkezleari zuzendu) aurkezleak musikograma bat erakutsiko diela esaten die eta aurkezlearen atzealdean dagoen proiektorean Freixinósen musikograma proiektatuko da) (II. Eranskina) (30segundu)
- (argiak aurkezleari zuzendu) aurkezleak noizbait musikograma bat ikusi duten galdetuko die eta hauen erantzunak entzungo dira. (30 segundu)
- Aurkezleak musikograma bat zer den azalduko du modu laburrean, lehen zikloko ikasleak direla kontuan hartuz. (2 min)
- Azalpena eman ondoren, ea orain gehiago ulertzen duten galdetuko zaie hauen erantzunak entzunda. (20 segundu)
- (eszenatoki guztiaren argiak itzaliko dira eta aurkezleari argi indartsu batek zuzenean joko dio) landuko dugun obraren istoriotxoa kontatuko die aurkezleak (1 minutu)
- (Argiak piztuko dira) aurkezleak istoriotxoa ea gustukoa izan duten galdetuko die ikasleei eta hauen erantzunak entzunen dira. (50segundu)
- Aurkezleak ikasleei, ea entzundako istoriotxoaren (Orena eta ehiztaria) antzezpena beraien lekuetatik egitera animatuko diren galdetzen die eta hauen erantzunak entzungo dira.(40 segundu)
- Istorioaren pertsonaien egin beharra azalduko zaie eta hauek banatu baino lehen, aurkezleak ikasleentzat opari bat daukala esango die (2 min)
- Aurkezleak, Euskadiko orkestra sinfonikoko lau musikariei ongietorria emanen die (argiak zuzenean musikariei joko die) eta hauek eszenatokiaren eskuineko eskaileretatik igoko dira eta ondoren, ezkerraldean eseriko dira eta beltzez jantzita joanen dira (1 min)
- (eszenatokia argiz beteko da)
- Aurkezleak musikariek jotzen dituzten instrumentuak zeintzuk diren dakiten galdetuko die ikasleei eta hauen erantzunak entzungo dira. (50 segundu)

- (argiak zuzenenean aurkezleari eta musikariei joko die) Aurkezleak musikariak jotzen dituzten instrumentuen azalpena emanen du, instrumentu bakoitzaren izena esatean,musikaria eserlekutik igoko da eta bere instrumentua erakutsiko die ikasleei. Horrela ikasleek, instrumentu guztien izena eta itxura ezagutuko dituzte. (3 min)
- (Argiak piztuko dira) Aurkezleak ikusitako instrumentu bakoitzak kontatutako istorioaren momentu bakoitza errepresentatzen dutela azalduko die. (30 segundu)
- (Argiak itzaliko dira) Musikograma proiektorean proiektatuko dute eta musikariak obra jotzen hasiko dira (argiak beraiei enfokatuko diete) eta aurkezleak makil handi batekin musikograman erritmoa jarraitzen joanen da, ikasleak istorioa jarraitu ahal izateko. (4 min)
- (argiak piztuko dira) Aurkezleak txaloak eskatuko ditu musikarientzat. (10 segundu)
- Istorioa antzezteko pertsonaiak banatuko dira maila bakoitzari pertsonai bat edo gehiago banatuz, kontuan hartuz ipuinean bost pertsonai daudela eta ikasleak, hirurogeitabost direla. Honela banatuko dira pertsonaiak: lehendabiziko mailako 1.A gelako hamabost ikasleak txakurrak izanen dira, eta 1.B gelakoak aldiz, hogei ikasle direnez, horietatik hamar ikasle oreinak izanen dira eta beste hamarrak herritarrak. Bigarren mailako 2.A gelako hamabost ikasleak ehiztarien hiru taldeak izanen dira horien artean bost ikasle ehiztariek talde gorria (RE), beste bost ikasle ehiztari urdinak (DO) eta azkeneko bost ikasleak ehiztari berdeak (MI) izanen dira. Gainera, pertsonai bakoitzak zer eginen duen azalduko zaie. Honekin batera, pertsonai bakoitzari obraren zein esaldi musikala egokitzen zaion esanen zaie, musikariek beharrezko esaldi musikala joko dutelarik. (10 minutu)
- Aurkezleak ea pertsonai bakoitzak eginen duena argi geratu den galdetuko eta ikasleen erantzunak entzungo dira. (20 segundu)
- Ikasleek obra antzeztuko dutela esanen zaie eta aurkezleak (makila erakutsiz) berak obrarekin batera, musikogramean istorioaren jarraiketa eginen duela gogoraziko die. (1min) .

- (Argiak itzaliko dira) Proiektorean Freixinósen musikograma proiektatuko da eta aurkezleak makila hartuz, musikariak obra jotzen hasi eta ikasleak obra antzezten hasiko dira. (4 min)
- (Argiak piztu) Aurkezleak ikasleen antzezpena goraipatuko du eta txalo bat eskatuko du. Ondoren, hirugarren mailako ikasleei ongietorria emango zaie. Hauek, eszenatokira igoko dira eta gelan landu den posizio berean kolokatuko dira, hau da, oreina eszenatokiaren ezkerreko aurreko aldean, txakurrak eszenatokiaren eskuineko aurreko aldean, tronpa joleak ezkerreko atzeko aldean, ehiztariak atzealde erdian eta herritarrak eskuineko atzeko aldean. (3 min)
- (Argi baxu bat jarriko da) Aurkezleak ikasle bakoitzak errepresentatzen duen pertsonaia aurkeztuko ditu, ikasle bakoitzak pertsonaien ezberdinketa egiteko, beharrezko materiala eramango duelarik.(2 min)
- Ondoren, lehengo hezkuntzako hirugarren mailako ikasleek, antzezpenari ekingo diotela esanen zaie. (10 segundu)
- (Argiak itzaliko dira) Proiektorean Freixinósek egindako musikogramen proiekzioa jarriko zaie, musikariek abestia jotzen hasiko dira eta ikasleek istorioa antzeztuko dute. (4 min)
- (Argiak piztuko dira) Aurkezleak txalo bat eskatuko du hirugarren mailako ikasleentzat egindako antzerkiarengatik eta ikus-entzuleak antzerkia gustukoa izan duten galdetuko zaie hauen erantzunak entzuz. (3 min)
- Aurkezleak musikograma bat zer den ikasi ote duten galdera eginen die ikasleei eta antzerkia egiteko entsaiorik behar izan ez dutenez, artista apartak direla esanen die. (3 min)
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoko lau musikariei eta ikus-entzule guztiei eskerrak emanen dizkie aurkezleak. (2 min)
- Kontzertua agurtuko du. (20 segundu)

#### *4.2.1. Gidoiaren garapena*

Nik proposatu dudan kontzertu didaktikoa, lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin musika gelan lan egiten hasten da eta proposamen hau,

zinema baten eszenatoki batean hirugarren mailako ikasleek eginen duten antzezpen batekin bukatuko da.

Gelan hirugarren mailako ikasleekin:

Hona hemen, nik eskola batean ikasleekin garatzeko sortu dudan kontzertu didaktiko baten hasiera azalduko dut, zeina Vivaldiren "Las 4 estaciones, Otoño, La Caza" obrarekin Juan Fernandez Freixinósek asmatutako musikograman oinarrituta dagoen.

Kontzertu didaktikoa nola burutuko den azaldu baino lehenago, aipatu beharra dago lehenik eta behin, lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin gelan aipatutako musikogramarekin sortutako antzezlan bat landuko dugula, zeina gure kontzertu didaktikoaren funtsa izanen den.

Beraz, nik proposatu dudan kontzertu didaktikoaren garapena, honela hasten da:

Lehenik eta behin, Antonio Vivaldiren argazkitxo bat erakutsiko zaie 3.mailako ikasleei eta ea ezagutzen duten galdetuko zaie. Ondoren, Antonio Vivaldiren ondorengo informazioa emanen zaie:

Antonio Vivaldi Venezian jaio zen eta bere aita San Marko dukearen biolin-jotzailea zuenez, bere musika tresnarik gustukoena, biolina zen. Vivaldik ile gorria zuenez, "abade kaskagorri" deitzen zioten. Umezurtz-etxe batean aritu zen abade lanak egiten, baina hango arduradunek proposatu zioten musika irakastea. Halaxe egin zuen Vivaldik, eta gutxinaka gutxinaka, obrak eginez arrakasta handia lortu zuen. Gaur egun ezagutzen den obrarik garrantzitsuena, "Las Cuatro Estaciones" izeneko obra da, zeina lau urtaro ezberdinentzat egindako lau kantez osatuta dagoen.

Vivaldi pixka bat ezagutuz, guk bere obraren zati bat (Otoño, la caza)" landuko dugula azalduko zaie. Ondoren, esandakoarekin harremanetan jartzeko, Antonio Vivaldiren obra jarriko zaie.

Behin abestia entzunda, azalduko zaie obra honentzat, Freixinos izeneko musikari batek, entzun dugun kantan oinarriturik, istoriotxo bat asmatu zuela "Oreina eta ehiztaria" eta hau kontatuko zaie. Hau, tonu ezberdinak erabiliz azalduko zaie, ikasleak ez aspertzeko:

“Udazkena iritsi zen eta hostoak erortzen hasi ziren, Nafarroako “Aizkorbe” herrian. Txoriak, Afrika alderantz zihoazen beroaren bila, baina Aizkorbeko herritarrak egunero, hauek ehizatzen saiatzen ziren ohitura handia baitzuten. Egun batean, Aizkorbeko alkateak txapelketa bat proposatu zien herriko ehiztari guztiei; sari handi bat emango zion, herriko mendietan barrena bizi zen orein txikia lehenago ehizatzen zuen taldeari, ondoren herritar guztien artean jango zuten hau. Beraz, Aizkorbeko hiru herritarren taldeak (gorriak MI, berdeak RE eta urdinak DO izenezkoak) ehizatzen hasi ziren, beraien zaldi eta txakurren laguntzarekin. Baina oreina, ohartzen da herriko ehiztariak bere bila daudela eta honek mendian zehar eskapo egiten du eta, nahiz eta ehiztarien txakurrek atxiki egiten dioten, orein txikiak eskapatzea lortzen du eta basoan gorde egiten da. Orein gizajoa mindurik dago, izan ere, ehiztarien txakurrek atxiki egin diote eta oinez dioala, bat batean, amildegi batetik erori egiten da eta hiltzen da. Aizkorbeko ehiztariek, ez dute orein txikia aurkitzen eta ez du inork txapelketa irabazten.”

Istoriotxoa kontatu ondoren, Freixinósek “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” abestiarekin egindako musikograma erakutsiko zaie eta beraien ustetan hori zer den galdetu eginen zaie. Komenigarria izanen da ikasle guztien pentsaerak entzutea, bakoitzak “marrazkiz beteriko horri” hori nola ikusten duten jakiteko.

Ikasleen iritziak entzun ondoren, musikogramaren azalpen txiki bat emanen zaie; Musikograma bat marrazki edo ikur bat da, musika ulertzen, begiratzen eta modu aktiboan entzuten laguntzen duena, azken finean, musika ikasteko tresna baliogarri bat dela esan dezakegu. Musikogramaren bitartez, bai musika jakinda ala ez jakinda, abesti bat interpretatzeko eta jarraitzeko gai izango gara. Metodologia hau, abestiaren erritmoa, pultsua, tinbreak, melodia … aztertzeko egokia izango da, aurretik kontzeptu hauek barneratu gabe.

Musikogramak ez ditu partitura konbentzionalaren ezaugarriak eta gainera, abesti berdinerako musikograma ezberdinak sortu ditzakegu.

Modu honetara, ikasleak ohartuko dira irakasleak kontatuko istoriotxoa, musikograman marraztutakoa dela. Hala ez bada, azalduko zaie.

Umeengan musika zaletasuna txikitatik bultzatzea, musika ikastearenganako interesa sortzea, entzulea musika tresna ezberdinetara hurbiltzea, aisialdi atsegin dibertigarri eta pedagogikoa eskaintzea … du helburu musikogramak

Tresna nau, 1970. Urtearen hasieran sortu ziren Joss Wytack pedagogoaren eskutik. Wytack-ek, musikogramak sortu zituen, musika ez zekiten neska mutilok musika ulertu ahal izatearen helburuarekin. Honek, mota guztietako ikasleak musikara hurbiltzea, honekin ongi pasatzea eta hau ulertzea nahi zuen eta.

Musikograma bat zer den ikusi eta ikasi ondoren, landuko dugun abestia jarriko zaie berriz ere eta musikograman abestia nola irakurriko dugun eta ipuina nola jarraituko dugun azalduko zaie. (koadrotxo bakoitzean hiru pultsu erabiliko ditugu,). Irakasleak musikograman behatzarekin hiru pultsuak markatzen dituen bitartean, ikasleek, beraien mahaietan hiru pultsuak markatu beharko dituzte ere, obraren erritmoa jarraituz.

Horrela, ikasleek abesti bat musikograma batean nola jarraitzen den ikasiko dute.

Ondoren, irakasleak galdetuko die ea obrak denbora guztian esaldi musikal berdinak dituen edo hauek aldatzen doaz. (berriz obra entzungo da) eta ondorioak aterako dira, zenbat esaldi musikal dauden eta zeintzuk diren esanez.

Behin hau guztia eginik, musikograman marrazturik dagoena, hau da, kontatutako “Oreina eta ehiztariaren” istoriotxoa beraiek antzeztu beharko dutela azalduko zaie. Istorioan azaltzen diren pertsonai guztien egin beharrak zeintzuk diren azalduko zaie eta ondoren, pertsonaien banaketa eginen da:

- Oreina: klasean zehar saltoka ibili behar da, txakurretatik eskapo eginez eta mina hartzen duen momentuan lurrera erori beharko da, min sentimendua adierazteko. Bukatzeko, amildegitik behera erortzen denean, hil egiten denez, lurrean etzanda geldituko da.
- Txakurrak: momentu oro, oreinaren atzetik joanen dira.

- Herritarrak: danborrak jotzen dituzte, ehiztariak beraien ehiza lanean animatzeko.
- Ehiztariak: zaldi gainean joaten direnez, zaldiaren mugimendua eginen dute klasetik mugituz. Hiru herritar talde daude, Gorriak (MI), berdeak (RE) eta urdinak (DO)
- Tronpa joleak:paperezko tronpa batzuekin, tronpa jotzearen itxura eginen dute.

Ikasle bakoitzari pertsonaia bat banatu ondoren, berriz ere Vivaldiren obra jarriko dugu, pertsonai bakoitzak egiten duen mugimendua eta hau kantaren zein momentutan (zein esaldi musikalean) egiten duen azaltzeko.

Behin, ikasle guztiek beraien pertsonaia eta egokitu zaien esaldi musikala zein den jakin ez gero, gelaren antolaketa eginen da, pertsonai bakoitzari bere lekua emanik (gehigarria 2). (oreina aurrealdean ezkerraldean, txakurra aurrealdean eskuinaldean, tronpa joleak atzean ezkerrean, ehiztariak atzealdean erdian eta herritarrak atzealdean eskuinean). Behin gela antolatu ondoren, Antonio Vivaldiren “Cuatro estaciones, Otoño, La Caza” abestia jarriko da eta ikasleak antzerkiarekin hasiko dira.

Lehendabiziko aldietan, irakasleak abisatuko die ikasle bakoitzari abestiaren zein esaldi musikaletan mugitu behar den. Hala ere, pare bat aldiz entsaiatu ondoren, ikasleak bakar bakarrik eginen dute antzerkia, pertsonaia bakoitzak bere esaldi musikala entzutean antzeztuko dutelarik. Hau ongi ateratzen den momentuan, eginen dugu kontzertu didaktikoa. Beharrezkoa izanez gero, musika orduez gain, errekreoetan ere entsaiatu beharko dute, kontzertuaren egunean akatsik ez egiteko.

Behin gelan Freixinosek Antonio Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” obrarekin egindako musikogramaren antzezpena bere osotasunean ongi atera ez gero, gure kontzertu didaktikoaren sorkuntzara jo beharko dugu, zeinetan hirugarren mailako ikasleek ikasitako antzezpena egin beharko duten, baina hori baino lehen, Lehen Hezkuntzako lehendabiziko eta bigarren mailek ere, gure kontzertuaren ikus-entzuleak hain zuzen ere, kontzertuak parte hartuko dute antzerkitxoan parte hartzen ere.

Beraz, behin gelan lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin gure kontzertu didaktikoaren funtsa landu ondoren, kontzertu didaktikoa sortzera joko dugu:

Herriko zinemara joanen dira lehen hezkuntzako lehengo zikloko lehendabiziko eta bigarren mailako ikasle guztiak eta mailaka eseriko dira, antzeztokia aurrean dutelarik. Denak eseri ondoren, aurkezlea beltzez jantzirik, eszenatoki erdira aterako da argi indartsu batek zuzenean joko duelarik eta honela hasiko da kontzertu didaktikoa:

-Kaixo ikus entzuleak! Ongi etorri “Oreina eta ehiztaria” kontzertura! Zer moduz zaudete? Nik galdera bat daukat zuentzat, ba al dakizue zein urtarotan gauden?

(ikasleen iritziak entzungo ditugu eta ondoren: )

-Bai, hortik entzun dut erantzun zuzena, udazkena da !! Eta norbaitek ba al dakit urtaro honetan zein animali paseatzen den gure mendietatik barrena, ehiztariek asko maite dutena? Adar handi handi batzuk ditu. (ikasleen erantzunak entzungo ditugu, argiak beraiei zuzenean joko dietelarik)

(Argiek aurkezleari joko diote)

-Arrazoi duzue, oreina da bai animalia maitagarri hori! Ba gaurko kontzertuan, Vivaldiren “Las 4 estaciones, Otoño, La Caza” obrarekin egindako oreina bati buruzko ipuintxo bat kontatuko dizuet, “Oreina eta ehiztaria” izenezkoa, ikasle batzuek musikograma bat jarraituz, obra antzeztuko dutelarik.Baina lasai egon lagunak! Zuek ere, gaur ipuintxoa antzeztuko duzue eta!

-Baino gauzatxo bat … nik oraintxe bertan seguruenik zuentzat arraroa den hitz bat aipatu dut. Musikogramak. Ba al dakizue zer den musikograma bat? (Ikasleen erantzunak entzungo ditugu) (Argiak ikasleei joko diete)

(Argiak, aurkezleari joko diote)

-Ziur nago milaka musikograma ikusi izan dituzuela, baina momentuan ez zarete konturatu, hori musikograma bat zenik. Ba nik, oraintxe bertan musikograma bat zer den azalduko dizuet, ados?

(Bat batean erabiliko dugun musikograma, aurkezlearen atzean egonen den proiektore batean agertuko da, sorpresa adierazten duen musika bat entzuten delarik)

-Hauxe da ba musikograma bat lagunok! Noizbait horrelako zerbait ikusi al duzue?

Ikusten duzuenez, musikograma bat marrazki edo ikur bat da, musika ulertzen, begiratzen eta modu aktiboan entzuten laguntzen duena, azken finean, musika ikasteko tresna baliogarri bat dela esan dezakegu.

Beraz, zuek ere marrazkiak eginez musikograma bat sortu dezakezue!

Musikogramaren bitartez, bai musika jakinda ala ez jakinda, abesti bat interpretatzeko eta jarraitzeko gai izango gara. Interesgarria, ezta?

-Ulertu al duzue gutxi gora behera zer den musikograma bat? (Erantzunak entzungo ditugu)

Beste galderatxo bat daukat zuentzat, ikusentzuleok! Ba al dakizue noiz sortu ziren musikogramak? Orain dela urte dezente sortu zirela, 1970. Urtearen hasieran! Denbora asko pasa dela?Geroxeago, ikasle batzuek , Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” izeneko obrarekin, Freixinósek egindako musikogramaren antzezpena eginen dute. Baina lehenik, nik ikasleek antzeztuko duten istoriotxoa kontatuko dizuet. Adi adi egon!

(Eszenatoki guztiaren argiak itzaliko dira eta aurkezleari zuzenean argitxo bat joko dio)

“Udazkena iritsi zen eta hostoak erortzen hasi ziren, Nafarroako “Aizkorbe” herrian. Txoriak, Afrika alderantz zihoazen beroaren bila, baina Aizkorbeko herritarrak egunero, hauek ehizatzen saiatzen ziren ohitura handia baitzuten. Egun batean, Aizkorbeko alkateak txapelketa bat proposatu zien herriko hiru ehiztari taldeei (Gorriak RE, berdeak MI eta urdinak DO izenekoak) sari handi bat emango zion, herriko mendietan barrena bizi zen orein txikia lehenago ehizatzen zuenari, ondoren, herritar guztien artean jango zuten hau. Beraz, Aizkorbeko hiru ehiztari taldeak ehizatzen hasi ziren, beraien zaldi eta txakurren laguntzarekin. Baina oreina, ohartzen da herriko ehiztariak bere bila

daudela eta honek mendian zehar eskapo egiten du eta, nahiz eta ehiztarien txakurrek atxiki egiten dioten, orein txikiak eskapatzea lortzen du eta basoan gorde egiten da. Orein gizajoa mindurik dago, izan ere, ehiztarien txakurrek atxiki egin diote eta oinez dihoala, bat batean, amildegi batetik erori egiten da eta hiltzen da. Aizkorbeko ehiztariek, ez dute orein txikia aurkitzen eta ez du inork txapelketa irabazten."

-Gustatu al zaizue? Istorio hunkigarria, ez da?

(Eszenatokiko argiak piztuko dira)

Esan dizuedan bezala, hirugarren mailako ikasleek, istoriotxo honen antzezpena antzeztuko dute zuentzat, baina lehenik eta behin, zuek istorio hau antzeztea nahi dugu, primeran egingo duzuela pentsatzen dugu eta. Animatzen al zarete? (erantzunak entzungo ditugu)

Lehenik, istoriotxoaren pertsonai bakoitzaren egin beharra azalduko dizuet eta geroxeago, istorioaren pertsonaiak banatuko ditugu. Ados?

- Oreina: eszenatokian zehar saltoka ibiliko da, txakurretatik eskapo eginez eta mina hartzen duen momentuan lurrera eroriko da, min sentimendua adierazteko. Bukatzeko, amildegitik behera erortzen denean, hil egiten denez, lurrean etzanda gelditzen da.
- Txakurrak: Txakurrak oreinaren atzetik joanen dira hau harrapatzeko nahian.
- Herritarrak: danborrak jotzen dituzte, ehiztariak beraien ehiza lanarekin animatzeko.
- Ehiztariak: hiru ehiztari talde daude, gorriak (RE) , berdeak (MI) eta urdinak (DO) eta hauek zaldi gainean joaten direnez, zaldiaren mugimendua eginen dute eszenatokitik mugituz.
- Tronpa joleak: paperezko tronpa batzuekin, tronpa jotzearen itxura eginen dute.

Beno, dagoeneko istoriotxoaren pertsonai guztiak ezagutu ditugu!
Orain, oparitxo bat daukat zuentzat, nahi al duzue jakin zer den?
(Erantzunak entzungo ditugu) .

Txalo bero bat Euskadiko orkestra sinfonikoko 4 musikariei ! (Txaloak entzungo dira eta musikariak eszenatokiaren eskuineko eskaileretatik igoko dira beraien instrumentuekin eszenatokira, beltzez jantzita daudelarik. Ondoren, eszenatokiaren ezkerreko aldean eseriko dira. Argiak musikariei zuzenean joko diete)

(Eszenatokia argiz beteko da)

-A ze sorpresa! Gurekin, Euskadiko orkestra sinfonikoko lau musikari ditugu gurekin !Ba al dakizue lau musikari hauek zein instrumentu jotzen duten? (Erantzunak entzungo ditugu, ikasleen ezagutzak ezagutzeko)

-Ba begira, Ezkerreko emakume honek,biolina jotzen du (emakumea altxatuko da eta instrumentua erakutsi eginen du, ondoren jarri eginen da)

Ondorengo emakumeak ere, biolina jotzen du ( emakumea altxatu eginen da eta honek ere instrumentua erakutsiko du eta eseriko da).

Hurrengo musikariak, biola jotzen du (gizona altxatu eginen da eta bere instrumentua erakutsiko du eta jarri eginen da )

Eta bukatzeko, azkeneko musikariak, kontrabaxua jotzen du (kontrabaxu jolea altxatu eginen da eta instrumentua erakutsiko du eta jarri eginen da )

(argiak piztuko dira)

Ezagutzen al zenuten instrumentu hauek? (Erantzunak entzungo ditugu)

Musikari hauek, gure ikasleek prestatutako antzezpenari musika jarriko diote. Baina hori baino lehen, ariketatxo bat eginen dugu zuekin, ikusentzuleok!

Hemen dauzkagun instrumentu bakoitzak, kontatu dizuedan istoriotxoaren momentu bakoitza irudikatzen dituzte. Ikusi nahi al duzue, nola jotzen duten eta zein instrumentuk irudikatzen duen istorioaren momentu bakoitza? Adi egon eta musikogramari begira ezazue!

(Argiak itzaliko dira eta proiektorean musikograma proiektatuko da)

(musikariak abestia jotzen hasiko dira argiak beraiei enfokatzen dietela eta bitartean aurkezleak musikograma, makil handi batekin jarraituz joanen da, esan bezala koadrotxo bakoitzean hiru pultsuko erritmoa markatuz).

(argiak piztuko dira)

-Txalo bero bat gure musikarientzat! Polita, ez da? Orain, musikariek abestia berriz ere joko dute eta zuek bitartean, nik kontatutako istoriotxoa antzeztu beharko duzue, baina horretarako, pertsonaiak mailaka banatu beharko ditugu eta pertsonai bakoitzari abestiaren zein momentuetan egokitzen zaion antzeztea ikasiko dugu. Prest zaudete? Goazen ba!

Beno, lehendabiziko mailako 1.A gelak, ehiztarien txakurrak errepresentatuko dituzue eta zuek oreina harrapatu nahi duzuenez, haserre bizi zaudetenaren aurpegia jarriko duzue, oreinaren atzetik korrika eginez. Zuek, esaldi musikal hau entzutean mugitu beharko zarete, ados?

( Musikariek esaldi musikala joko dute)

-Lehendabiziko mailako 1.B gelakoak hogei ikasle zaretenez, ezkerreko hamar ikasleak oreina izanen zarete eta eskuineko beste hamar ikasleak herritarrak. Orduan, oreina zaretenak eta ondorengo esaldi musikala entzutean korrika, txakur eta ehiztarietatik eskapoka zoaztenaren itxura eginen duzue. Entzun dezagun zuen esaldi musikala!

(Musikariek dagokion esaldi musikala joko dute)

-Herritarrak zaretenak, ehiztariak animatu behar dituzuenez, danborra jotzen ari zareten bezala eginen duzue, entzun dezagun zuen esaldi musikala!

(herritarren esaldi musikala joko dute musikariek)

-2.A gelan aldiz, hamabost ikasle zaretenez, tronpa joleak izanen zarete eta zuek tronpa jotzen ari zaretenaren itxura eginen duzue, ikus dezagun zein den zuen esaldi musikala.

(musikariek tronpa joleei dagokien esaldi musikala joko dute)

-Bigarren mailako, 2.B gela, ehiztarien hiru taldeak errepresentatuko dituzue, beraz zaldiaren gainean zoaztenaren itxura eginen duzue. Guztira hamabost ikasle zaretenez, ezkerraldeko bost ikasleak talde gorria izanen zarete, RE

Izenekoa eta hau izanen da zuen esaldi musikala ( dagokion esaldi musikala entzungo da) .

-Ondoko beste bost ikasleak talde urdinak izanen zarete, DO izenekoak eta zuek ere zaldiaren gainean zoaztenaren itxura egin beharko duzue. Zuek, esaldi musikal hau entzutean antzeztuko duzue, proba dezagun! (dagokion esaldi musikala joko dute musikariek).

-Bukatzeko, azkeneko ehiztari taldea, talde berdea (MI) izanen da, eta eskuineko azkeneko bost ikasleak izanen zarete. Zuek, gainontzeko ehiztariak bezala, zaldiaren gainean zoaztenaren itxura eginen duzue eta honako esaldi musikala entzutean antzeztuko duzue. (Esaldi musikala joko dute musikariek).

-Oso ongi !! Argi geratu al da pertsonai bakoitzak obraren zein esaldi musikaletan antzeztu behar duen, ez da? (Ikasleen erantzunak entzungo ditugu)

-Orain, antzezpena egingo dugu ea zer moduz ateratzen den. Erne erne egon zuen esaldi musikala entzutean eta musikograman zuen pertsonaiaren marrazkitxoa ikustean, antzezpena egiteko, ados? Lasai egon lagunak, nik makil handi honekin (makila erakutsiko da) musikogramaren jarraipena eginen dut, beraz, ez duzue arazorik izanen antzezpena egiteko. Beno, behin maila bakoitzak antzeztu behar duena jakinik, has gaitezen!

(Proiektorean musikograma berriz ere jarriko da eta aurkezlea makil handi batekin hau jarraituz joanen da, musikariak abestia jotzen hasiko dira eta antzerkia ikasleak antzeztuko dute)

(argiak piztu)

-Oso ongi egin duzue! Etxean entsaiatu duzue, ala? Badirudi baietz! (Erantzunak entzungo ditugu) txalo bero bat zuentzat!

Beno, orain 3.mailako ikasleek prestatutako antzezpena ikusteko momentua iritsi da, lagunak! Gogoak dituzue? Guztira, 14 ikasle izanen dira antzerki hau burutuko dutenak, txalo bero bat 3.mailako ikasleentzat! (ikasleak eszenatokira igoko dira eta klasean landu dugun posizio berean kolokatuko dira, hau da, oreina eszenatokiaren ezkerreko aurreko aldean, txakurrak eszenatokiaren

eskuineko aurreko aldean, tronpa joleak ezkerreko atzeko aldean, ehiztariak atzealdean erdian eta herritarrak eskuineko atzeko aldean)

-Orain, ikasle bakoitzak, errepresentatzen dituzten pertsonaiak azalduko dizkizuet: (argi suabe bat jarriko da)

Oreina, eszenatokiaren aurre-ezkerraldean dagoen neskak errepresentatuko du. (argiak zuzenean neskari enfokatu)

Bi txakurrak, eszenatokiaren aurre-eskuinaldean dauden bi mutilek errepresentatuko dute, (Argiak txakurrei enfokatu)

Atzeko aldean ezkerreko aldean dagoen neskak tronpa jolea izanen da (argiak beri enfokatu)

Tronpa joleen ondoan dauden neska eta mutilak ehiztarien talde urdina izanen dira(argiak beraiei enfokatu). Ondoko hiru mutilak, talde gorria izanen dira eta ezkerreko hiru neskak ehiztarien talde berdea. Ehiztari guztiek puztarri bat eramen dute.

Eta bukatzeko, eszenatokiaren atzeko aldean eskuinaldean dauden bi neskak herritarrak izanen dira (Argiak beraiei enfokatu)

-Pertsonai guztiak ezagutu ez gero, ikus dezagun ikasle hauek guretzat prestatuta daukatena!

(Argiak itzaliko dira eta proiektorean, Freixinósek egindako musikogramaren proiekzioa jarriko zaie, musikariak abestia jotzen hasiko dira eta ikasleek istorioa antzeztuko dute).

(Antzezpena bukatzean, argiak piztu )

-Txalo bero bat hirugarren mailako ikasleentzat! Gustukoa izan al duzue gure hirugarren mailako ikasleek egin diguten antzezpena? (Erantzunak entzungo dira)

-Beno, antzezpen polit hau ikusi ondoren, ikasi izanen duzue zer den musikograma bat, ez? Hori espero dut! Gainera, argi izan behar duzue artista paregabeak zaretela, izan ere, antzezpen polit bat egin duzue entsaiorik gabe! Zorionak lagunak! Eskerrak eman nahi dizkiogu ere, Euskadiko orkestrako

musikariei kontzertu hau zuzenezko musikarekin egitearengatik! Mila esker! Zuen gustukoa izan dela espero dugu, mila esker eta beste bat arte!

### 4.3. Kontzertuaren ebaluazioa

Aurretik aipatu dugun bezala, kontzertu didaktiko orok ebaluazio baten beharra dauka. Alde batetik, ikasleen lana ebaluatuko da, honako ebaluazio irizpideak jarraituz:

- Ikasle bakoitzaren jarrera aktiboa jardueraren garapenean.
- Ikasle bakoitzak obraren esaldi musikalen ezberdinketa egiteko gai izan den.
- Gainontzeko ikasleak errespetatzen dituen.

Honez gain, irakasleak ikasleen obserbazioa eginen du jardueraren lanketa guztian zehar non, ikasle bakoitzaren jarraipen indibiduala eta kolektiboa eginen duen.

Bestetik, kontzertu didaktikoaren nolakotasuna ebaluatu beharko da ere, hau da, aurkezleak gidoia behar den bezala jarraitu duen, gidoi hau egokia ote zen, argi eta soinu teknikariek momentu egokietan lanari ekin dioten …

Ebaluazioan hitz eginen diren gauza guzti horiek, etorkizun batean beste kontzertu didaktiko bat jorratzerakoan kontuan hartzeko izanen dira, hau da, ez da pertsona bakoitzak egin duen lanaren kritika txar bat, baizik eta etorkizunean hau hobetzearen helburua du.

### 4.4. Datu bilketa

Egindako proiektu honetan proposatu den kontzertu didaktikoaren atal bat praktikan jartzeko (grabatuta) aukera izan dudanez, hurrengo lerro hauetan bertan ikusi dudanaren azalpen bat eginen dut, ebaluazio sinple bat eginez. Esan bezala, proposatutako kontzertu didaktikoaren atal bat jarri da praktikan, hau da, sekretuan mantenduko dudan ikastetxean, lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin, musikograma bere osotasunean lantzeko aukera izan dut, beraz, horixe da ondoren azalduko dudana. Argi dago ezinezkoa izan dela proposatutako kontzertu didaktiko guztia praktikan jartzea, izan ere, eskola honek bere plangintzarekin jarraitu behar zuen eta ezinezkoa litzakete

horrelako jarduera handi eta luze bat burutzea. Hala ere, honen atal baten lanketaren nolakotasuna azalduko dut.

### *4.4.1. Aurre ebaluazioa*

Esan bezala, proposatutako kontzertu didaktikoaren lan tresna (musikograma) izan da praktikan jarri ahal izan dudana lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleekin.

Hasteko, hirugarren mailako ikasleei gure kontzertu didaktikoan erabiliko dugun obra musikalaren (Las Cuatro Estaciones) autoreaz zerbait zekiten galdetu nienean, hauetariko inork ez zidan baiezkorik eman. Egia esan, ez zen gauza berria izan niretzat, horixe espero bainuen, izan ere, gaur egungo gazteek ez dute musika klasiko edo tradizionala entzuten baizik eta egungo sozietatean saltzen den musika. Horrexegatik, Antonio Vivaldi nor zen azaldu nien eta nire harridurarako, isil isilik zeuden, nire azalpena adi-adi entzuten.

Guk autore honen zein obra landuko genuen azaldu nienean, segituan protestatzen hasi ziren, musika mota hori gustuko ez baitzuten, baina Vivaldiren “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La Caza” obra jarri eta musikograman obra jarraitzen hasi nintzenean, denak harri eta lur geratu ziren, bertan zeuden marrazkitxoei begira. Obra bukatu eta galdera pila egiten hasi ziren, denak esku artean neukan musikogramarekin erlazionaturik. Horrexegatik, musikogramaren azalpena eman eta honen ipuina kontatu ondoren, bertan ikusi eta entzun zutena beraiek antzeztu beharko zutela esatean, arazoak hasi ziren. Arazoak, pertsonaien banaketarekin, izan ere, ikasle guztiek txakurrak edo oreinaren pertsonaia izan nahi zuten eta azkenean, zozketa egitea pentsatu nuen.

Ikasleei Pertsonaiak banatu eta hauetako bakoitzari egokitzen zitzaion obraren esaldi musikala azaldu ondoren, obraren antzezpenarekin hasi ginen. Egia esan, lehendabiziko antzezpena ez zen espero nuen bezain gaizki atera, lehendabiziko aldia izateko ikasleek oso ongi egin zuten, nahiz eta beti ikasleren batek bere esaldi musikala zein zen atzendu eta berandu antzezten

zuen. Hala ere, geroz eta aldi gehiagotan errepikatu antzerkia, ikasleek bakoitzaren esaldi musikala zein zen argi eta garbi zeukaten eta horrela, antzerkia bere osotasunean antzeztu zuten.

### *4.4.2. Amaierako ebaluazioa*

Musikogramaren antzezpenaren egunean, nahiz eta ikasle bakoitzak bere pertsonaiaren esaldi musikala zein zen jakin, pixka bat urduri zeuden. Baina antzerkia grabatzeko kamara atera nuenean, denak txaloka eta pozik jarri ziren, segundo batetik bestera sekulako motibazioa sartu zitzaien eta hori ikusirik, nire itxaropenak antzerkiaren grabaketarekiko oso positiboak izan ziren.

Antzerkiaren grabaketa oso ongi atera zen, ikasle bakoitzak bere pertsonaiaren paperean sartu zen eta antzezpena behar bezala egin zuten. Hala ere, logikoa den bezala, ikasleren bat momenturen batean despistatu zen eta egokitzen zitzaion esaldi musikala hasita zegoenean, antzeztu zuen. Argi dago, honek ez duela garrantzi handirik, izan ere, ikasle hauen lana baloratu behar da, antzerkilariak ez direlako eta 9 urteko ikasleak izateko, antzerkia oso ongi egin zutelako.

Bukatzeko, metodologia partizipatiboa erabili denez, ikasleak landutako Vivaldiren obra entzutean edo honen izena entzutean, honi buruz egindako antzezpena eta ikasitako eduki musikalez oroituko direlakoan nago, hori baita azken finean jarduera hau egitearen funtsetariko bat.

## CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS

A continuación, explicaré las conclusiones que he extraído con el proyecto propuesto.

Para comenzar, creo que debo explicar la razón por la que he decidido utilizar los musicogramas como herramienta en el concierto didáctico creado.

En las prácticas de grado, prácticas de especialidad, siendo música mi especialidad, durante dos meses pude observar qué tipo de contenidos, metodología, actividades… utilizaban en el colegio en que realicé las prácticas (Colegio San Miguel de Santesteban). Estas prácticas las realicé en el tercer curso de primaria y entre tantas actividades, hubo una que me llamó mucho la atención, ya que vi que con ésta los niños eran felices en aquella aula de música. Todos reían, cantaban y se movían con gran entusiasmo. Esa actividad, fueel tratamiento de diferentes musicogramas.

Aquel día, me di cuenta de lo importante que es para los niños este tipo de actividades, ya que en todo momento, como bien he comentado antes, estos niños disfrutaron muchísimo con aquel ejercicio. Tengo que admitir que no sólo fueron ellos los que disfrutaron de aquella actividad, la profesora de música, y yo también disfrutamos viendo el disfrute de aquellos alumnos. Además, cuando estos alumnos de tercero de primaria terminaron la clase en la cual trabajaron el musicograma, lo primero que hicieron fue comentar a los demás alumnos del colegio lo que habían hecho en el aula de música. En consecuencia, no hubo otro remedio que hacer la misma actividad, es decir, el tratamiento de los musicograma, con los diferentes alumnos del colegio. Tengo que decir, que tanto los alumnos de primero de primaria tanto los alumnos de sexto de primaria, disfrutaron mucho con esta actividad. Con esto quiero decir, que como bien podemos ver este tipo de actividades tienen mucho éxito en todo tipo de alumnos de primaria, ya que todos disfrutan con ella.

Tenemos que tener claro, que la asignatura de música no es sólo ir al aula, tocar la flauta, bailar o cantar e irnos. La asignatura de música debe ser una asignatura para que todos los niños y niñas puedan expresar sus sentimientos libremente, aprendan música de un modo divertido y entretenido y gocen de

ella. Para ello, lo que los profesores de música debemos intentar hacer es, motivar a los alumnos con actividades que sean atractivas, activas y participativas, dejando de lado las teorías y otro tipo de recursos que desmotiven a los alumnos. De este modo, los niños no verán la asignatura de música como algo “aburrido, sino como una asignatura donde aprenden y además de eso, se lo pasan bien.

Además, recuerdo que cuando yo realizaba clases de solfeo, un día trabajamos la obra “Las Cuatro Estaciones, Otoño, La caza” de Antonio Vivaldi con el musicograma basando en esta obra y creado por Juan Hernández Freixinós. La verdad es que antes de realizar las prácticas de especialidad en la escuela, no me acordaba de que yo había sido partícipe de un musicograma, pero al ver aquella clase de música en la cual trabajaron uno, recordé lo que yo viví. Como tanto me gustó aquel ejercicio realizado en mi infancia, decidí memorizar todo lo que hicimos en aquella clase de solfeo y de este modo, decidí proponer en mi proyecto un concierto didáctico utilizando como herramienta los musicogramas.

Teniendo en cuenta que he podido poner en práctica una gran parte de mi concierto didáctico en el aula, es decir la parte del musicograma, puedo sacar bastantes conclusiones acerca del mismo. Claro está que la profesora de música se ha implicado mucho en la realización de esta práctica, ya que dejó la materia que debía de dar en tercero de primaria para que yo, pudiera poner en práctica la sección del musicograma. Gracias a esta profesora, he visto que los niños y niñas, disfrutan muchísimo en la realización de una actuación basándose en el musicograma propuesto. Como bien he dicho antes, me ha sido imposible poner en práctica el concierto didáctico en toda su totalidad, ya que requiere mucho tiempo y dedicación, además los niños y niñas del colegio, debían seguir recibiendo los contenidos musicales señalados en la programación para ese curso. Aunque no haya podido realizar el concierto didáctico, viendo cómo actuaban los niños de tercero de primaria en el aula tengo la certeza de que el concierto didáctico que he propuesto, conseguiría resultados positivos en toda su totalidad.

Como bien he dicho antes, durante mi infancia he asistido a diferentes conciertos didácticos, que han sido de gran ayuda para la elaboración de este proyecto. Por esa misma razón puedo decir que mis conocimientos previos acerca de los conciertos didácticos no parten de cero. Aún y todo, tengo que admitir que no hay comparación alguna entre lo que sabía sobre este tipo de conciertos antes de realizar el proyecto y lo que sé ahora, después de haber realizado el proyecto.

He tenido que leer muchos artículos, webs, libros y revistas para darme cuenta realmente de lo que un concierto didáctico conlleva detrás, es decir, cuando vi mi primer concierto didáctico lo que vi fue un escenario lleno de músicos y un presentador que contaba un cuento mientras un grupo de personas actuaban en un escenario. ¿Sólo eso? Sí, solo eso es lo que yo veía, pero ahora después de haber analizado qué es un concierto didáctico en toda su totalidad, me he dado cuenta el trabajo, la dedicación y los especialistas (músicos, presentador, técnicos, público… ) que lleva consigo un concierto didáctico, aspectos que mucha gente no valora.

Como todos bien sabemos, hoy en día no se valora lo positivo que es que los niños y niñas acudan a ver un concierto didáctico. Claro está que la situación de hoy en día de la Educación, no es ni la mejor ni la más adecuada. En consecuencia, la educación musical no es la misma hoy en día y la de hace unos años, ya que antes por ejemplo, los colegios preparaban salidas para los niños y niñas del colegio para asistir a diferentes conciertos didácticos, cosa que hoy en día no se hace. Por esta misma razón, ya que hoy en día por la terrible situación que estamos viviendo, los colegios no se pueden permitir el lujo de organizar una salida a ver un concierto didáctico, todos los profesores de música, deberían trabajar este tipo de conciertos en el aula por lo menos, hasta que esta la situación de la educación actual, vuelva a su normalidad.

En conclusión, gracias a la realización de este proyecto considero que un concierto didáctico, es una herramienta de trabajo que nos ofrece diversas posibilidades a la hora de trabajar la música con los alumnos, ya que esta herramienta está dirigida a la educación integral de los niños y niñas. Además,

creo que es mucho más valioso que los niños y niñas conozcan la música de diferentes maneras y segura estoy que de este modo, como bien he señalado antes, los niños y niñas disfrutan, aprenden, gozan, expresan sus sentimientos y valoran la música gracias a esta gran herramienta, es decir, los conciertos didácticos.

## BIBLIOGRAFIA


- BACHMANN, M-L. (1988).*La rítmica Jaques Dalcroze. Una educación por la música y para la música.* Colección Pirámide Música, Ediciones Pirámide, Madrid.
- Dels Angels, M. (2007). Zoltan Kodaly. *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical. Una selección de autores relevantes.* Barcelona: Graó, 63-69.
- Díaz, M; Giráldez, A. (2007). *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical. Una selección de autores relevantes.* Barcelona: Ed. Graó.
- Fernandez, J. (2007). *Edgar Willems. Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical. Una selección de autores relevantes.* Barcelona: Graó, 43-52.
- Frega, A.L. (1996). *Música para maestros*. Barcelona: Ed. Graó, 21-23.
- Hentschke, L. (2009). ¿Qué es un concierto didáctico? *Papeles del Festival de Música Española de Cádiz,* 41-44, (4).
- Huete, C. (2009). Taller: Realización de guiones y selección musical. *Papeles del Festival de Cádiz,* 79-90, (4).
- López, S. (2007). Carl Orff. *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical. Una selección de autores relevantes.* Barcelona: Graó, 71-76.
- Martenot, M. (1993). *Principios fundamentales de formación musical y su aplicación.* Madrid: Ediciones Rialp.
- Martos, E. (2013). La Normativa Legal sobre la Educación musical en la España contemporánea. *Espiral. Cuadernos del profesorado*, 44-50, 6 (12)
- Muñoz, J.R. (2007). Justine Bayard Ward. *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical. Una selección de autores relevantes.* Barcelona: Graó, 33-42.

- Neuman, V. (2004). La formación del profesorado y los conciertos didácticos. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, Universidad de Granada, 1-13, 8(1).
- Neuman, V. (2009). El departamento Educativo de la Orquesta Ciudad de Granada. *Papeles del Festival de Música Española de Cádiz*, 69-75, (4).
- Neuman, V. (2011). Un proyecto centrado en conciertos didácticos escolares en Granada. *Documento universitario*, 191-202,
- Ortega, M. (2009). ¿Qué es un concierto didáctico? *Papeles del Festival de Música Española de Cádiz*, 45-55, (4).
- Paynter, J. (1972). *Una introducción a la música actual en las escuelas*. Buenos Aires: Ed. Ricordi.
- Pérez, J. (2003). Hacia una educación musical para el futuro: el concierto didáctico. *LEEME, revista de la lista Europea de Música en la educación,* 1-3, (11)
- Schafer, R. (1970). *Cuando las palabras cantan*. Buenos Aires: Editorial Ricordi.
- Sanuy, M. (1982). *Música, profesor (bases para una educación musical).* Madrid: Ed. Cincel
- Wuytack, J. (2009). Audición Musical Activa con el Musicograma. *Eufonía Didáctica de la Música*, 43-55, (47)

## ERANSKINAK:

- I. Eranskina: Antonio Vivaldiren “Las cuatro estaciones, Otoño”zatiaren “La caza” zatia, allegro:

  **http://www.youtube.com/watch?v=AS4tHqV84es**

- II.Eranskina: Juan Fernandez Freixinósen musikograma





Ca-za-dores = ¡La pa-tru-lla RE!
Cam-pe-si-nos Hacen ruido. Van bajando la montaña y...
(opción "6" : ruido a "gogó"...)
idéntico ritm
La trompa sue-na sol-mi-mi
La patrulla MI
La patrulla DO
La trompa avisa al ciervo.
idéntico ritmo
(¡Por fin una frase perfecta! Sorprende al cie
3 veces
2 veces
Sal-ta el cier-vo los perros le sig
= las huellas (aba
pies)
(dedos o dec
sobre mesa
cantar notas
imitar lad
cazadores → cazadores (relativo)
Cada árbol es una nota de la columna
Disparar cuando toque.
Cada vez más suave y más agudo (se aleja)
Cada árbol una nota de la columna
"Ad Libitum" La jauría
huellas


3 Ciervo - perros
primer encuentro
Ciervo - escopetas
viene la jauría
Cazadores
cabalgada
Ciervo
huida hacia otras tonalidades
Bosque encantado
DOM I
FAM IV
FAM IV (I)
Cazadores
tonalidad original
cabalgada
Ciervo
perros
a las dunas
4 Ciervo
angustia
Ciervo
agotamiento - muerte
Juan Hernández Freixinos
Llamada
init - trompas
Cazadores
patrulla - "r" "m"
cabalgada - recogida
Cazadores
patrulla "d"
"eco"
Antonio Vivaldi
Las cuatro Estaciones
El otoño
"La caza" 3er mov.
Violín solo
CIERVO



Percatarse del diseño ascendente y descendente del violín solista
Seguir el trazado de los "garabatos" con el dedo.
Seguir trazado de los garabatos
Disparar. "Ad libitum" la jauría.
La pa-tru-lla RE!
La patrulla DO
rem I
MIM ?
7ª dim
SOLM V
FAM IV
FAM IV → C
Señalar los árboles
Cantar la fundamental o tríada de cada gra
(abajo).
Seguir con el dedo los garabatos. "Ad libitum" la jauría.
Rit
RIP ?
1ª cadencia. descendente
2ª. cadencia: ascendente y concluye
La trompa sue-na sol-mi-mi
La pa-tru-lla RE
La patrulla MI
La patrulla DO
Toda la Org.
cazadores
jauría
graves
medios
ladridos
escopetas
Recreador
Juan Hdez
Freixinós

**Oharra:** Beharrezkoa ikusten dut argitzea, lehendabiziko eranskina hau, hau da, Juan Fernandez Freixinósen musikograma, ez dela bere benetako posizioa. Hau da, eranskinetan orri bakoitza bat bestearen azpian daudela ikus daiteke, hori horrela dago izan ere, orriak landuko diren posizioaren arabera jartzen baditut (bat bestearen ondoan, segidan) oso txiki jarri beharko nituzke eta ez litzateke ezer ikusiko. Hona hemen, nola geratuko zen benetako posizioa.



- III.Eranskina: Antzerkiaren antolaketa

**IKASLEEN ANTOLAKETA**



**SINBOLOEN ADIERAZPENA (LEIENDA)**



- IV.Eranskina:Antonio Vivaldiren “Las cuatro estaciones, Otoño, La Caza” partitura.

  Aipatu beharra dut, ondoko partitura, Vivaldiren “Las cuatro estaciones” obraren Otoño zati osoa agertzen dela, baina guk soilik Udazkeneko hirugarren mugimendua, Allegro, “La caza” da landuko dugu. Hona hemen, lau instrumentuen partiturak.

-Biolina I. partitura






Mutopia-2003/08/26-350


3
Adagio Molto
D
Violino Primo
Vbriachi dormienti
Adagio Sordini
Piano
Più Piano
Pianissimo
Allegro
E
La Caccia
Violino Primo
Allegro - Forte
12
Mutopia-2003/08/26-350




Mutopia-2003/08/26-350




Mutopia-2003/08/26-350 This music is part of the Mutopia project: http://www.MutopiaProject.org/
It has been anonymously typeset and released under the MutopiaBSD licence.
You should have received a copy of the licence with this music. If not, it is available at the above website.

- Bibolina II. Partitura




2
Piano
Piano
7
Forte
C
Piano e Larghetto
Più Piano
Pianissimo
Allegro Molto
Mutopia-2003/08/26-350




Nerea Tellechea González


4
19
F
G Scioppi e Cani
Mutopia-2003/08/26-350



Mutopia-2003/08/26-350 This music is part of the Mutopia project: http://www.MutopiaProject.org/
It has been anonymously typeset and released under the MutopiaBSD licence.
You should have received a copy of the licence with this music. If not, it is available at the above website.

- Biola partitura:






ADAGIO MOLTO




Mutopia-2003/08/26-350


3
ALLEGRO
E
La Caccia
Alto Viola
Allegro
F
G Sciopppi e Cani
Mutopia-2003/08/26-350




Mutopia-2003/08/26-350 This music is part of the Mutopia project: http://www.MutopiaProject.org/
It has been anonymously typeset and released under the MutopiaBSD licence.
You should have received a copy of the licence with this music. If not, it is available at the above website.

- Biolontxeloa partitura






Mutopia-2003/08/26-350


3
81
85
C
16
106
Allegro Molto
111
Adagio Molto
D
Vbriachi dormienti
Organo e Violoncello
Adagio Molto - Il Cembalo arpeggio
14
Sempre Piano
29
Piano
Più Piano
Pianissimo
Allegro
E
La Caccia
Organo e Violoncello
Allegro
Mutopia-2003/08/26-350




Mutopia-2003/08/26-350




Vivaldiren obra honen partiturak, honako web helbidetik jaso ditut:

(http://www.el-atril.com/partituras/compositor/Vivaldicontenido.htm)

- V.Eranskina:Ikasleek egindako antzezpenaren bideoa:

  Datuak babesteko legea dela eta, komenigarria ikusi dut atal honetan ez eranstea, Doneztebeko San Miguel eskolako ikasle batzuk Juan Hernandez Freixinósen musikogramarekin egindako antzezpenaren bideoa. Hala ere, egindako bideo hau, proiektuaren defentsan erakutsiko dut.